

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## DONOSTIAKO EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA

ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZA GRADUA- EAZ GRADUA

### GRADU AMAIERAKO LANA

---

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA: EMAÚS, EUSKAL MONETA  
ETA IRUÑAKO GELTOKI ZAHARREKO KASUAK

**IKASLEA:** Itsaso Gantxegi

**IRAKASLEA:** Eusebio Lasa

**2018/2019 ikasturtea**



## IRADOKIZUNAK

Proiektu honekin hasi nintzenean zaila egin zitzaidan lanaren ibilbide bat finkatzea. Tutorearen laguntzarekin eskema bat egin eta horri jarraiki aurrera egin nuen. Zailena informazioaren bilaketa eta hortik garrantzitsuena eta nik behar nuen informazioa ateratzea izan da, honekin batera, landa azterketarako behar nituen erakundeekin kontaktatzea ere ez da erreza izan baina tutorearen laguntzarekin aurrera atera dut eta azkenean behar nuena lortu dut.

Niretzat pertsonalki asko erakutsi didan lan bat izan da, ez nuen inongo informaziorik honen inguruan, adibidez banekien Emaús existitzen zela, baina ez nekien beraien lana nolakoa zen eta zein helbururekin sortu zen. Hori gertutik ikustea aberasgarria izan da eta hemendik aurrera honen inguruan gehiago ikastea gustatuko litzaidake.

## ESKERRAK

Eskerrak eman nahi dizkiot lehenbizi, Eusebio Lasari, nire lana bide batetik enfokatzen laguntzeagatik eta lanean aurrera egin ahala eskainitako laguntzagatik. Bestetik, Alberto Gaston-eri, Xebax Christiri eta Katrin Ginerari, beraien laneko denboratxo bat niri eskaintzeagatik eta lan honen osotasunean laguntzeagatik.



## EDUKIAREN AURKIBIDEA

EDUKIAREN AURKIBIDEA.....	5
LABURPENA.....	7
I. ZATIA: Sarrera.....	9
1. Lanaren aurkezpena.....	9
1.1. Lana aukeratzearen arrazoiak.....	9
1.2. Lanaren helburu nagusiak.....	10
1.3. Lanaren metodologia eta egitura.....	10
II. ZATIA: Ekonomia Sozial eta Solidarioaren testuingurua.....	13
2. ESS-aren testuingurua eta ESS-ari buruz hurbilketa desberdinak.....	13
2.1. ESS-aren testuingurua.....	13
2.2. ESS-ari buruz hurbilketa desberdinak.....	17
3. ESS-aren aurkezpena Europan, Estatu Espainolean eta Estatu Frantsesean.....	29
3.1. Sarrera.....	29
3.2. Ekonomia Sozial eta Solidarioa Europan.....	29
3.3. Ekonomia Sozial eta Solidarioa Estatu Espainolean.....	31
3.4. Ekonomia Sozial eta Solidarioa Estatu Frantsesean.....	31
4. Ekonomia sozial eta solidarioa Euskal Herrian.....	33
4.1. ESS-a Euskal Autonomia Erkidegoan.....	33
4.2. ESS-a Nafarroako Foru Komunitatean.....	36
4.3. ESS-a IPAR EUSKAL HERRIAN.....	38
5. Ondorioak.....	40
III. ZATIA : Landa azterketa.....	43
6. Emaús gizarte fundazioa, Euskal Moneta eta Geltoki.....	43
6.1. Sarrera.....	43
6.2. Emaús gizarte fundazioa, Euskal Moneta eta Geltokiaren landa azterketa.....	44
6.3. Ondorioak.....	54
IV. ZATIA: Ondorioak eta etorkizunera begira.....	57
7. Ondorioak eta etorkizunera begira.....	57
7.1. Ondorioak.....	57
7.2. Etorkizunera begira.....	59
BIBLIOGRAFIA.....	61
GRAFIKOEN AURKIBIDEA.....	65
TAULEN AURKIBIDEA.....	65

IRUDIEN AURKIBIDEA .....	65
ERANSKINAK.....	67
EMAÚS GIZARTE FUNDAZIOA.....	67
EUSKAL MONETA.....	75
GELTOKI PROIEKTUA .....	80

## LABURPENA

Ekonomia sozial eta solidarioaren garapena azken urte hauetan esanguratsua izan da. Batez ere Europan dauden Espainia eta Frantzia bezalako herrialdeetan. Bertako legediak jasan dituzten aldaketetan oinarrituz, zenbait erakunde nagusitu dira eta nolabaiteko garrantzia hartu dute ekonomia alternatibo honen esparruan. Horregatik lan honetan aztergai izango dira eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren etorkizunera begira jarriko ditugu beti ere Euskal Herria kontutan hartuz. Gainera Euskal Herriko hiru adibide zehatz aztertuko ditugu: Emaús, Euskal Moneta eta Iruñako Geltoki Zaharra.

### HITZ GAKOAK

Ekonomia Soziala, Ekonomia Solidarioa, Ekonomia Alternatiboa.

### **RESUMEN: Economía Social y Solidaria: Casos prácticos de Emaús, Euskal Moneta y Geltoki Iruña.**

El crecimiento de la Economía Social y Solidaria los últimos años ha sido muy significativo. Mayormente en los territorios de Europa, como España y Francia, que en los últimos años han añadido leyes de Economía Social y Solidaria a su legislación. Se han desarrollado diferentes iniciativas y han ido creciendo diferentes asociaciones a raíz de este crecimiento. Por eso en este trabajo intentaremos mostrar lo que ha pasado y lo que se espera que pase mirando hacia el futuro. Además, hemos analizado tres ejemplos concretos de Euskal Herria: Emaús, Euskal Moneta y Geltoki.

### PALABRAS CLAVE

Economía Social, Economía Solidaria, Economía Alternativa.

### **ABSTRACT: Social and Solidarity Economy: Emaús, Euskal Moneta and Geltoki Iruña cases.**

In recent years the growth of the Social and Solidarity Economy has been very significant, mostly in Europe, where Spain and France came with a new law included into their legislation about Social and Solidarity Economy in our countries. Different initiatives have been developed in our countries, the Basque Country for example. Due to this development, we wanted to know the importance of this economy and what its future will be, focusing on the Basque Country. Besides, we have analyzed three concrete examples from the Basque Country: Emaús, Euskal Moneta and Geltoki zaharra from Iruña-Pamplona

### KEYWORDS

Social Economy, Solidarity Economy, Alternative Economy.





## I. ZATIA: Sarrera

### 1. Lanaren aurkezpena

#### 1.1. Lana aukeratzearen arrazoiak

Azken urte hauetan gizartean nahiko iskanbila egon dira langileok ditugun eskubide eta betebeharren inguruan. Izan ere, enpresa askok langileon eskubide horiek murrizten dituzte nolabait eta lan baliabide horiek pertsonari zeukan motibazio hori kendu diezaioke. Pertsonen eskubideetatik hasiz, uste dugu orokorrean, mundu honetan, oso garrantzitsua dela pertsonak erdian jartzea, ingurumenarekin batera. Azkenean, pertsonak pertsonekin bizi behar dugulako eta baita inguru on batekin. Hori horrela ez bada badakigu zer gertatzen den: iskanbilak toki guztietan.

Hori azalduta, proiektua aukeratzekoan, zenbait gai desberdin gure aurrean edukita, Ekonomia Sozial eta Solidarioak (ESS) atentzioa deitu zigun. Sozial hitza eta solidarioa entzunda genituen hitzak ziren, baina ez nituen inoiz ikusi batera jarrita. Hortik zetorren gai honengatik nuen interesa. Gure inguruan enpresa askok erabiltzen dute sozial hitza, sozialki gizartean horrek balio positibo bat ematen diolako eta guk hitz hori ikusten dugunean beti positiboki baloratzen dugulako. Baina benetan hitz hori edukitzeak gauzak asko aldatzen ditu? Ezetz esango nuke nik, askok erabiltzen baitute hori teorian, baina gero praktikan ez dutelako lantzen.

Soziala atzean utzita, deigarria iruditu zitzaigun “solidario” hitzaren esanahia begiratu, horrek ekonomia sozialari zer gehitzen zion jakin nahi genuen. Horrela aurkitu genituen zenbait teoria eta autore desberdin, honen inguruan eztabaidatzen zutenak. Gainera, unibertsitatean pasatako lau urteak eta gero esango genuke, ekonomia sozial eta solidarioa ez dudala inoiz entzun, horregatik oraingoan gure lana egiteko aukera izanik, aurrera jo nuen eta ikerketa hau gure aukeretan sartu genuen.

Interesgarria da jendeak egiten duen lana beste batzuegatik. Ekonomia solidarioan dabilzan pertsona guztiak, pertsonalki eta profesionalki asko miresten ditugu. Beraien lana gertutik ikustea interesgarria irudituko zitzigula pentsatu genuen eta geure buruari erronka bat jarriz aurrera egin genuen. Horregatik lan honetan, autore desberdinen ikuspegiak eta eztabaidak azalduta, gure ekarpen hori egitea ere garrantzitsua izango zela iruditu zitzaigun, ez profesionalki aberastuko gintuelako bakarrik, pertsonalki ere, mundu honetan oraindik beste ekonomia mota bat dagoela jakiteak eta honek munduan arazoak dituzten, bertako merkaturak bultzatzen duten, ingurumena zaintzen duten eta beste gauza on asko egiten duten jendea dagoela pentsatzeak poztu egiten gaituelako.

Horregatik oraingoan, gure lana Ekonomia Sozial eta Solidarioa aztertzea izango da, lehenbizi mundu mailan dauden teoria desberdinekin, Euskal Herrira ekarriz eta bertako hiru kasu zehatz aztertuz.

## 1.2. Lanaren helburu nagusiak

Lan honi itxura bat emateko, hasiera batean helburu batzuk finkatu genituen, baina ohartu ginen helburu horiek oso zabalak zirela eta zerbait zehatzagoa behar genuela. Denbora bat pasatu ostean ohartu ginen guk lan honetatik atera nahi genuen informazioa, orain arte, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren historia nolakoa izan den eta etorkizunera begira zein ikuspegi daukaten jakitzea zela.

Lana egiterakoan ezarri genituen helburuak lau izan ziren eta hortik atera genuen helburu nagusia. Lehenbizi, ekonomia sozial eta solidarioaren kontzeptuaren hausnarketa egitea izango litzateke. Geroago, ESSaren garapena Europan, Estatu espainolean eta frantzesean nolakoa izan den. Espainiara eta Frantziara gerturatuta, Euskal Herrian zentratuko dut gaia eta bertako erakundeen ikuspegitik, ekonomia sozial eta solidarioa nola ikusten duten eta azkenik honen etorkizuna nola irudikatzen duten jakitea izango da. Laburbilduz eta hortik helburu nagusia aterata, ekonomia sozial eta solidarioaren gaur egungo egoera eta etorkizuna aztertzea izango da.

## 1.3. Lanaren metodologia eta egitura.

Metodologiari dagokionez, bi atal nagusi ditu lanak. Lehenengoa, marko teorikoa izanik eta bigarrena landa azterketa. Marko teorikoan, testuingurua, autore desberdinen hurbilketa eta amaieran, Europan, Espainian eta Frantzian gaia enfokaturik, bertan Ekonomia Sozial eta Solidarioak duen indarra edo garrantzia nolakoa den aztertuko dugu. Espainiara eta Frantziara hurbilketa egin eta gero, Euskal Herriko egoera aztertuko dugu, Euskal Autonomia Erkidegora, Ipar Euskal Herrira eta Nafarroara hurbilduz. Hiru lurralde horietan ESSaren joera nolakoa izan den eta bertan dauden elkarte desberdinak eta ezarritako dagoen legedia zein den ezagutuko ditugu.

Behin marko teorikoa amaituta, bertatik atera dugun informazio nagusiarekin ondorioak idatziko ditugu, lan guztiko ondorioak idazteko orduan oinarri bat edukitzeko. Ondoren, landa azterketaren atala dator, hemen lanaren zati praktikoa burutuko dugu eta horretarako, arestian aipatutako hiru lurraldeak hartu, eta bakoitzetik elkarte bat hartuta, azterketarekin aurrera egin dugu. Azterketa hori gauzatzeko, galdetegi bat prestatu genuen, galdera berdinak hiru elkarte desberdinei egin ahal izateko, horrela aterako dugun informazioa interesgarriagoa izango da lanerako. Trankripziotik ateratako informazioa, landa azterketan txertatuko dugu modu koherente batean eta hori amaitzean, zati honen ondorioak aterako ditugu. Ondorio horiek ere lagungarriak izango dira azken ondorioak ateratzeko.

Egiturari dagokionez, lan hau hiru zati handitan banaturik egongo da. Lehenbizi, ekonomia sozial eta solidarioaren testuingurua azalduko dugu, horretarako, besteak beste, honen sorrera eta legedia aztertuko ditugu. Atalari sarrera eman ostean, orain arte autore esanguratsuenek esan dutenaren laburpen bat egingo dugu, dauden teoria

desberdinak aurrez aurre jarriz eta ekonomia honen inguruan informazio gehiago eduki ahal izateko.

Behin ESSaren nondik norakoak azaldu ostean, Espainiaren eta Frantziaren kasuak aztertuko ditugu, bertako historia pixka bat azalduz eta estatu bakoitzak dituen legedia zein den aztertuz. Hori dena erabiliko dugu geroago Ekonomia Sozial eta Solidarioa Euskal Herrian aztertzeko.

Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria izena duten hiru lurraldetan bereiziko dugu eta bakoitzaren azterketarekin hasiko gara. Lurralde bakoitzean dauden elkarte ezagunenak, legedia, ekonomia solidarioan dabiltzan erakundeen ehunekoak eta azken urteetan izan diren aldaketak azalduko ditugu. Atal honi amaiera emateko, aurretik idatzitako guztiaren ondorio bat aterako dut, gero hori ondorengo atalarekin alderatzeko.

Atal horri amaiera eman ostean landa azterketa bat egingo dugu, aipatu ditudan azken hiru herrialde bakoitzeko elkarte, enpresa edo erakunde bat harturik. Horietako bakoitzarekin kontaktuan jarriko gara eta galdetegi berdina erabiliz, guztiei galdera berdinak egingo dizkiegu, bukaeran erantzunak hobeto ikusteko eta ondorioztatzeko. Atal honen amaieran ere, aurrekoaren berdin, ondorio batzuk aterako ditugu.

Amaitzeko, aurreko bi atal handi horiek bukatu ostean, lan osoaren ondorioak idatziko ditugu. Honekin batera, landa azterketa egiteko erabili dugun galdetegia eta elkarrizketa bakoitza transkribituta amaieran txertatuko dugu, eranskin moduan.



## II. ZATIA: Ekonomia Sozial eta Solidarioaren testuingurua

### 2. ESS-aren testuingurua eta ESS-ari buruz hurbilketa desberdinak

#### 2.1. ESS-aren testuingurua

Ekonomia Sozialaren hasiera 1844. urtean eman zela esaten da “Sociedad Equitativa de los Pioneros de Rochdale”n sorrerarekin batera. Ingalaterran sortu zen sozietate hau, 28 laguneko eskutik. Langile horiek beraien lana galdu zuten greba batera joateagatik eta horregatik sortu zuten kooperatiba hau, kooperazio eta solidaritatearen printzipioan oinarrituz. Beraien lanei irtenbide bat topatzeaz gain, Industria iraultza-k langile askoren bizi modua txirotu zuen eta horregatik garaian bizi zuten larrialdi egoera horri irtenbide bat topatu nahi izan zioten. Kooperatiba hau, Erresuma Batuan erreferente bat bilakatu zen. Bertan eredu bezala hartuta, munduko beste herrialde batzuetara ere ailegatu zen eta horrelako enpresak sortzen hasi ziren.

Bestalde, 1904. urtean Rafael Uribe jeneralak eta Benjamin Herrerak plan kooperatibo bat aurkeztu zuten Kolonbian langileen eskubideak defendatzeko. 1931. urtetik aurrera kooperatibak indarra hartu zuen eta herrialde desberdinetan ezagunagoak egin ziren. Aurrerago, 1960. urtean alegia, kritikak hazten joan ziren analista sozial dominante batzuegatik hasita, hauek zirelarik aldaketak eskatzen zituztenak. Kapitalismo modernoak ekar zezaketen desjabetze kultural eta sinbolikoa saihesteko balio zuen, aurretik industria iraultzak sortu zituen ondorio larriak berriz ez gertatzeko. Une horretan bertan, egoera azkar aldatzea nahi zutenek, beraien esku zegoen teoria dena praktikan jartzen hasi ziren, ahalik eta azkarren ekonomia alternatibo bati sarrera emateko.

Gaur egun mundu mailan, milioika pertsona, daukagun sistema ekonomikotik (ekonomia kapitalistari erreferentzia eginez) baztertuta gelditzen dira, lan duin bat edukizetik eta hezkuntza edo osasun zerbitzu on bat jasotzetik. Europa mailan zehazki, 2015. urteko El mundo (2018) aldizkariko datuak hartuz, 120 milioi pertsona sozialki bazterturik izateko arriskuan zeuden eta zifra hau globalki asko okertzen da. 2018. urteko datuek esaten dutenez, Espainia mailan jadanik biztanleria osotik %18a sozialki baztertuta dago, 8,6 milioi pertsona hain zuzen ere. Datuak zertxobait gehiago zehaztuz, horietatik 4 milioi pertsona egoera txarrean baztertuta daude. Datu hauetan oinarrituz esan dezakegu, krisi garaia hasi zenetik %40an igo direla baztertuak izan diren pertsonen ehunekoak.

Ekonomia solidarioa saltoa eman aurretik, gaur egun Estatuan Ekonomia Sozialari ematen zaion definizioa zein den argitzea gustatuko litzaiguke. Izan ere, bi definizio mota dituela esan dezakegu, legalki definitzen dena eta sozialki definitzen dena:

a) **Legalki** hartzen duen definizioa zein den ikusteko, 5/2011ko Martxoaren 29ko legea hartuko dugu. Bertan horrela definitzen dute ekonomia soziala: Ekonomia sozial hitza hartzen dute, jarduera ekonomikoaren eta enpresarien multzoan dauden eta eremu pribatuetan dauden erakundeak, non, 4.artikuluan jasotako printzipioak hartuta, barne dauden pertsonekin eta interes ekonomiko eta sozialarekin ados daudenak:“Se

*denomina economía social al conjunto de las actividades económicas y empresariales, que en el ámbito privado llevan a cabo aquellas entidades que, de conformidad con los principios recogidos en el artículo 4, persiguen bien el interés colectivo de sus integrantes, bien el interés general económico o social, o ambos. “ (5/2011 ko martxoaren 29ko legea)*

Gainera, 4. artikulua honako printzipio hauek azaleratzen ditu:

- Pertsonen nagusitasuna eta helburu soziala kapitalaren ginetik, honek auto gestioan eta gardentasunean, demokrazian eta partaidetzan kokatzen dira eta honekin lehentasuna ematen zaie pertsonen gaineko aukeraketei, lanarekiko aportazioei eta prestatutako zerbitzuei, beti ere helburu sozial batekin, kapital sozialaren erlazioarekin.
- Bazkideek egindako lanarekin, zerbitzuekin edo aktibitateekin lortutako emaitzen aplikazioa, beti ere, entitatearen helburu sozialera bideratuta.
- Barneko solidaritatearen promozioa eta baita bere garapen propioa, emakumeen eta gizonen arteko berdintzaren alde egiten duten aukerak bermatzea, kohesio soziala, baztertze arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea, kalitatezko eta egonkorra den lana ematea, bizitza pertsonala, familiarra, laborala eta iraunkortasunaren bateratzearen aldeko konpromisoa.
- Indar politikoen gaineko independentzia.

Legeak ezartzen dituen erakundeak ere badaude; kooperatibak, lan sozietateak, desgaitasuna daukaten pertsonekin lan egiten duten zentro bereziak, gizarteratze enpresak, mutualitateak, arrantzaleen kofradiak, desgaitasuna daukaten eta baztertutak diren pertsonen gizarteratzeaz arduratzen diren erakundeak, elkarteak eta fundazioak.

b) Definizio **sozialari** dagokionez, Galán-ek (2018) esan bezala, baliabide eta instituzio desberdinak gestionatzeko eta antolatzeko ekonomia bat da, beti ere interes sozialari eta berdintsuari lehentasuna emanez. Ekonomia, bisio klasiko edo bisio kapitalista batetik ikusi beharrean, ekonomia honek esaten du honen lehendabiziko helburua, modu kooperatibo batean, ondasun eta zerbitzuen banaketa eta kontsumoa izan beharko litzakela.

Perez de Mendiguren eta Etxezarreta-k (2014) dioten bezala, Ekonomia Soziala ibilbide luzeko errealitate bat da, gaur egun nozio heldua dela esan beharko litzateke, definizio argia eta erakundetze maila garrantzitsua garatu duena herrialde batzuetan eta baita onarpen zabala lortu du kontzeptu hau osatu eta ikertzen duten eragileen artean. Aldiz, Ekonomia Solidarioa azken urteetan garatzen hasi den adiera gazteagoa da eta interpretazio ezberdinen arteko eztabaida bizian dago gaur egun. Heldugabetasun hori, termino bakarraren pean teorizatu nahi diren errealitate sozioekonomikoen aniztasunari ere zor zaio. Horregatik, zaila da baieztatzea, Ekonomia Solidarioa teorikoki zein instituzionalki nahikoa egonkorturiko nozioa denik, ezberdintasun nabarmenak antzematen baitira herrialde desberdinen artean, bai antolakuntza ereduetan eta baita horien erakundetze mailari dagokionez.

Ekonomia solidarioaren heldutasunaz ahaztuz bere errealitatea azaltzen saiatuko gara. Ekonomia Solidarioa Ekonomia Sozialaren adarretik hazten da. Solidario hitza, lan aukerarik ez daukaten pertsona guztiei zuzenduta dago, gizartearengatik baztertuta sentitu diren eta baztertu diren pertsona guztiei laguntzeko pentsatuta hain zuzen ere. Laguntza guzti horietarako osatzen eta sortzen dira erakunde, asoziazio, kooperatiba eta autogestiorako enpresak. Ekonomia solidarioa, bisio eta praktika (ekoizpen, kontsumo, komertzio eta finantzazio) erreibindikatzailer bezala definitzen da. Hau aipatuta, garrantzitsua da esatea, esperientzia guzti honetan, aktibitate ekonomiek edukitzen dituzten akzioak, hezkuntza eta kulturarekin konbinatzen dituztela, horrela talde lana eginez, bertan ekoizten eta lan egiten duten komunitateari balorea gehituz eta lagunduz.

Horrelako praktikak sortzen dituzten esperientziak arrazionaltasun ekonomiko berri batera eramaten gaituzte, eta hemen solidaritatea bihurtzen da ideien buru. Ekonomia Solidarioan barneratuko dira, gizarteratze enpresak, inizatiba sozialerako edo herri-onurarako kooperatibak, helburu sozialerako jarduerak egiten dituzten erakunde eta asoziazioak, hirugarren sektoreko lan sozietateak, bidezko merkataritza sustatzen dutenak, solidarioak eta ekologikoak, enpresa solidario berrien entitate sustatzaileak, kontsumo arduratsua sustatzen duten inizatibak, trukean dabiltzan sareak edo denborazko bankuak, banka etikoa eta langileei esker berreskuratu eta auto kudeatuta dauden enpresak eta abar. Laburtuz, lanerako estruktura berriak sortzen dituen mugimendua da, maila lokal, eskualde eta global batean non honen helburua, eraldaketa soziala eta modelo sozioekonomiko alternatiboaren sorrera den (Guridi, Pérez de Mendiguren, Lametti, Deux, Vázquez eta Uribe, 2011).

Kontutan hartu behar da ekonomia sozial eta solidarioa ez dela aurretik aipatu dudan pertsonen baztertzeari aurre egiteko ekintza bat soilik, izatez gizarte osoarentzat sortu den ekimena da eta guztiontzat bizi kalitate duin bat eman nahi duen inizatiba bat dela ezin dugu ahaztu.

Gizartearentzat oztoporik handienak desberdintasun ekonomikoak dira, baina esan beharra dago azkenaldian zerbait aldatzen dagoela. Azken urteotan izan diren ekintzek eta jendearen ezagupen eta formazioarengatik gauzak poliki-poliki aldatzen ari dira baina oraindik lan handia daukagu egiteko guztiok. Denok nahi dugu ekonomiak lehenbizi jartzea, lehenbizi gizartearen beharrei aurre egiteko gaur egun badaude eta existitzen dira horri laguntza eta indarra ematen dioten inizatibak. Adibide bezala ageri da Etiopiako Meseret, kredituzko kooperatiba bateri esker, bere familia eta bere komunitatea aurrera ateratzea lortu du. Kooperatiba honek gainera, dirua prestatzeaz gain, emakumeak indartzen ditu, beraien familiak aurrera eramateko eta baita ere komunitatearen garapenean laguntzeko, garapen hori indibiduala bakarrik ez izateko, kolektiboa ere bai.

Horrelako adibideak Ekonomia Sozial eta Solidarioaren helburuetako bat zein den ulertzen laguntzen digu, hau da, lehen helburua pertsoneri eta hauen komunitatean

dauden guztiei laguntzea da. Ekonomia Sozial eta Solidarioa bera, ekonomia ulertzeko beste metodo bat da, erdian pertsonak eta ingurumena jartzen dituen. Eraldaketa sozialean lagunduko digun modu bat ere bada, eraldaketa horrekin beharrak, abileziak, pertsonentzat kontribuzioa eta sozietateko mozkinen berrinbertsioa bultzatuko duena. Helburua, iraunkortasuna da.

Beraz, Ekonomia Sozial eta Solidarioa lan honetan askotan aipatuko dugun moduan, beste ekonomia baterako etapa bat da. Etapa horretan esperientzien analisia eta hausnarketa kolektiboa ezinbestekoak dira, honek lagunduko duelako eredu elkartuago bat egiten eta baita ekoizpen kolektibo batzuk burutzen. Horiek eragin positibo bat edukiko dute lanean eta baita gestioko beste modalitate batzuetan. Hedapenerako estrategia, ezagutzaren, zabalkuntzaren eta hausnarketaren batura izango da.

Ekonomia Sozial eta Solidarioak izen hau hartu du azken urteotan, leku desberdinetako ideiak hartuz eta honi buruz egin izan diren hausnarketak eta iniziatiba berri guztiak batuta, nahiz eta urteetan zehar izen desberdinak eman, esanahia berdina izan da. Guridi et al.-ek (2011) baieztatzen duten bezala, ESSa ekonomia alternatibo baten proposamen ireki bat da, non moldaketa berriei zabalik egongo den eta inola ere ez da "errezeta" bezala aurkeztua izango.

Puntu honetara iritsita bi galdera egin behar dira: lehenik eta behin, zer ulertu behar den ekonomia bezala eta azkenik, zer zentzutan kontsideratu behar den alternatiba bat dela. Lehenengo galderari erantzuna emanez, Coraggio (2011) jarraituz, ekonomia bezala ulertzen da, ekoizpena, banaketa, zirkulazioa eta ondasun eta zerbitzuen kontsumoa antolatzen dituzten instituzioak, baloreak eta praktikak, horrek pertsonon beharrak eta nahiak betetzeko gai izango direlarik.

Bigarren galderari dagokionez, Boaventura de Souza eta Rodriguez-en (2002) arabera, alternatiboa deitzen zaio, kapitalismotik kanpo dauden printzipioak betetzen dituen ekonomia delako. Bi adibide ezartzen dituzte hori azaltzeko; bata, desberdintasun estrukturaleri egiten diote erreferentzia, adibidez desberdintasun klasistak, etnikoak edota herrialdekoak, nahiz eta pertsona desberdinak izan, beti ere denak ondo ikusita egongo dira. Bestea, kutsakorra den kontsumo eta produkzioari atentzioa deitzen dio ingurune natural baten aldeko apustua eginez.

Arazo horiek konpontzeko alternatiba bat, hau da, eraikuntza sozial berri baten moduan ulertu daiteke. Alternatiba honek indarra hartzeko, hausnarketa kolektiboaren ezagutza eta gestio mota desberdinak beharrezkoak izango dira, teoria horiek praktikara eramanez ahal izateko. Alternatiba hau ez da herrialde bakar batean ematen gero ikusiko dugun bezala, unibertsala da eta mundu osoko toki denetara iritsi daiteke, horrela izan beharko luke behintzat. Beraz, zer egin daiteke ESSak munduan indar handiagoa hartzeko eta pertsonen honen inguruko geroz eta informazio gehiago edukitzeko?



Lehenbizi, gure ordezkari politikoei presioa egin helburu horiek betetzen laguntzeko eta ondoren gaur egun existitzen diren Ekonomia Sozial eta Solidarioen inizatiba batzuei indarra eman.

Ekonomia sozial eta solidarioaren sarrera honen amaierara iristeko, azpimarratu behar da honen garapenak ez digula pertsonon lan egoera hobetzeko lagunduko bakarrik, edo gizarteak dituen aurreiritziengatik baztertuta sentitzen den kolektiboek laguntza emateko, kulturaren eta politikaren borrokaren garapenerako ere inplikatzeko da eta horretarako faktore kolektibo askoren laguntza behar du, politiko eta kulturalaz gain, baita faktore sozial eta ekonomikoak ere. Lau faktore hauen batzearekin eta lanarekin, seguruenik ekonomia sozial eta solidarioaren helburuak lortuko direla. Gainera, sozietate zibilak eta bertan sartuta dauden erakundeek, beraien ahalmenak indartu beharko dituzte eta honekin batera estatuarekin artikulatu beharko dira, gestio publikoaren demokratizazioan parte hartzeko eta baita ematen diren behar eta arazoei irtenbide bat emateko ere.

Ekonomia Sozial eta Solidarioak geroz eta demokratizazio handiago baterako laguntza ematen du, honek handitzen dituelako ekoizpenerako eta enpresen gestiorako beharrezkoak diren bideak eta baita lan egonkorrak eta kapitalaren menpe ez dauden lan motak sorrarazten ditu ere.

## 2.2. ESS-ari buruz hurbilketa desberdinak

Ekonomia sozial eta solidarioari sarrera txiki bat emanda eta nondik norakoak laburki azaldu ondoren, hurbilketa desberdinak zeintzuk diren azalarazi nahi dugu. Horrela, ingurune geografiko desberdinetan kokatzen diren pertsona eta pentsaera desberdinak puntu berdinerara ailegatzen diren edo behintzat ekonomia alternatibo honen inguruan daukaten oinarritzko ideia berdina duten aztertuko dugu.

Gaur egun, ekonomia sozial eta solidarioak izen desberdinak hartzen ditu, batzuek dena ekonomia solidarioan laburtzen dute eta beste batzuek ekonomia alternatiboa deitzen diote. Lanean gehien aipatuko dugun hitza, ekonomia sozial eta solidarioa izango da.

Hasteko, Celorio eta Lopez de Munain-ek (2007) aipatzen duten ekonomia solidarioari buruzko definizioak eta hausnarketa garrantzitsuenak hartuz, sarrera emango diogu atalari. Oinarritzko kontzeptuak zeintzuk diren adierazten dituzte eta hauek Ekonomia Sozial eta Solidarioa ulertzeko garrantzitsuak direla deritzogu.


Celorio eta al.-en (2007) esanetan, ekonomia solidarioak printzipio batzuk gehitzen dizkio gizarteari: begirada, baloreak eta transformazio horretarako behar ditugun praktikak. Honekin, mundu mailan existitzen diren hiri antolakuntza, lokal edo globalak, batzen ditu mundu eta gizarte berdintsu, gizatiar eta iraunkor bat eraikitzeko.

Ekonomia solidarioa beraz, bisio eta praktika bat da non ekonomia, garapen pertsonalerako eta komunitariorako iturri moduan hartzen duen eta ez helburu bezala. Perspektiba honetan ekonomia solidarioa praktika guztiz transformatzaile batean bilakatzen da, gaur egun eta historian zehar eman den ekonomia kapitalistaren aurka doalako. Aurrerago Coraggio-ren (2009) arabera, Solidario hitzak, gaur egungo ekonomia neoliberalak hartzen dituen lehentasunei alternatiba bat ematen dio. Bisio hauek, balore eta praktika batzuetara eramaten gaituzte, non hauek pertsona eta hiritar guztien garapena eta ahalmena bultzatzen duten eta baita kooperatiban oinarritutako erlazioak eta ez konpetentzian edo lehian baldintzatzen direnak.

Celoriok et al.-ek (2007) partekatutako definizioari dagokionez, Ekonomia solidarioa deitzen zaio indibidualki eta kolektiboki garatuta dauden sistema sozioekonomiko eta kulturei, praktika solidario, parte hartzaile, humanista eta helburu lukratibo batzuekin ekonomia helburu bezala hartuz, gizartearen garapen integral bat helburu duenari. Espazio horretan sartzen dira jarraian aipatuko ditugun printzipioak, elkarteek, enpresek eta baita inizatiba ekonomiko eta finantzarioek ere oinarrian hartzen dituztenak.

Printzipio horiek berdintasuna, lana, kooperazioa, irabazi asmorik gabekoa eta ingurumenarekin konpromisoa edukitzea izango dira.

### 2.2.1. *Grafikoa 1:Ekonomia solidarioaren printzipioak*



*Iturria: Geuk egina. Celorio et al. (2007) kontutan hartuz.*

Lehenik eta behin Jimenez-en (2015) herrialdean oinarri hartuta, guretzat, erabiltzen duten eredu jarraitzea komenigarria izan daiteke, ekonomia sozial eta solidarioaren garrantzitik abiatuta beti ere. Nahiz eta gertaera horiek gehienbat Ekuadorren lekua hartu, beste zenbait herrialdeetan horrelako gertaerak gerta daitezke eta gertatzen direla esatera ausartzen gara.

Ekuadorreko Errepublikako konstituzioaren legearen 288. artikulua esaten duenez, bere sistema ekonomikoa, soziala eta solidarioa dela esaten du. Hau da, balantze berean ezartzen ditu ekonomia sozial eta solidarioa eta ekonomia pribatua eta publikoa, bi mutur hauek parekatuta utziz. Onarpen instituzional hau, bertako erakundeek, elkarrekin eta pertsonen laguntzari esker lortu dute eta zenbait mobilizazioen ostean Estatuaren onarpena lortu zuten.

*Que, el Art. 288 de la Constitución de la República del Ecuador, prescribe que: "Las compras públicas cumplirán con criterios de eficiencia, transparencia, calidad, responsabilidad ambiental y social. Se priorizarán los productos y servicios nacionales, en particular los provenientes de la economía popular y solidaria, y de las micro, pequeñas y medianas unidades productivas" (Constitución de la república del Ecuador, 2008)*

Ekuadorreko Ekonomia Sozial eta Solidarioko Mugimenduak (MESSE) helburutzat hartu du ondo bizitzeko modu berri baten eraikuntza. Eraikitzeke modua, solidaritatean eta gizakion arteko harreman onetan bilduriko gizarte bat garatzea izan behar da. Indar handiena edukiko duen mugimendua komunitatea bera dela baieztatzen du eta hau izango da eraldaketa politikoan eragina izango duen indarra. Horrez gain, zirkuito solidario ekonomiko interkulturalak (CESI) sortzea ere proposatu dute, lurraldeen garapenari forma berri bat emateko.

CESI Ekuadorreko Ekonomia Sozial eta Solidarioaren mugimendutik hasi zen martxan, horrela zirkuito solidario ekonomiko interkulturalak garatzen hasiz. Gainera, CESI ez da esparru ekonomikoetan bakarrik zentratzen, esparru ekologiko, sozial, kulturalak eta politikoak ere bere gain hartzen ditu. Aipatutako hauek, beti ere printzipio solidarioak, elkarrekikotasunean, osagarriak eta bizitzaren zaintzan oinarrituak egon beharko dute.

Aipatutakoa gero praktikan jartzeko orduan, arazo batzuk eman zirela ere antzeman zuten. Izan ere, badaude ekoizpenean oinarri ekologikoak erabiltzen dituzten familiak eta beraien produktuak Ekonomia Solidarioko azoketan saltzen dituztenak. Baina beraien eguneroko bizitzarako, produktu batzuk, supermerkatuetan edo herriko beste denda batzuetan erosten bukatzen dutenak, hauek sormen edo jatorri solidarioarekin zerikusirik ez dutenak izanik. Honekin azaldu nahi zutena hau zen: nahiz eta teoria behar bezala jakin, praktikan hori ez bada jartzen, ez du ezertarako balio.

Ondorioz, arestian aipatu dudan CESI-aren sortzeko beharra Ekonomia solidarioaren praktika artikulatuetik eta honen printzipioak benetan sentitzetik dator. Honen bidez pertsonen eta naturaren arteko harremana bermatzea lortu nahi da beti ere errespetuan oinarrituz.

CESI-ek harreman estua daukate herrialdeko egitura sozial, kultural eta politikoekin. Zirkuito hauetan bultzatzen diren printzipioak honako hauek direlarik: lehenik eta behin, elkarrekikotasuna, osagarritasuna eta birbanaketa; bigarrenik, pertsonen eta naturaren arteko elkartzea eta azkenik, elkarreratzea, antolakuntza eta lan kolektibo komunitarioa. Azken kontzeptu hauek ezagunak zaizkigu, Celorio-ren (2017) kasuan ere berdina aipatzen zelako. Honen iritziz gainera, lan kolektibo komunitarioaren garapenerako, bisio eta praktika bat behar da, hori bera eta garapen pertsonala iturri moduan hartzen duena.

Coraggio-ren (2009) esanetan aldiz, ekonomia guztiak eraikuntza sozialak dira, hori bai, ez dira sozial moduan ulertuko pentsamendu neoliberalak hartzen dutenak. Pentsamendu neoliberal horiek, teoria politiko-ekonomiko batzuk hartzen ditu gaur

egungo eskema kapitalistan oinarrituz, batzuetan printzipio erradikalagoak bereganatuz. (Significados, 2018)

Coraggio-ren (2011) ustez, Ekonomia Sozial eta Solidarioak bi definizio eduki ditzake. Lehen, sistema ekonomiko bat da non honen funtzionamenduak gizarte duin eta berdintsu bat ziurtatzen duen. Bigarrena, gaur egun daukagun sistemaren joera negatiboak indargabetu nahi duen proiektu kolektibo bat da non bere ikuspegia sistema ekonomiko alternatibo bat eraikitzean finkatzen den.

Lehenik, argi gelditu behar da, definizio hauek ulertzeko momentuan momentuko kultura eta toki bakoitzak duen egoera zein den jakin behar dela. Bestetik, bigarren definizioa pixka bat sakonduz, proiektu soziopolitiko eta kultural transformatzaile bati egiten dio erreferentzia. Arestian aipatu dugun CESI-ek Coraggiorekin duten antzekotasunaz ohartzea interesgarria da, biek ematen baitiote garrantzia proiektu soziopolitiko eta kulturei.

Bestetik, Coraggio-ren (2011) esanetan, ekoizpenaren, banaketaren, kontsumoaren eta kontzeptu hauekin erlazioa dituzten beste zenbait printzipio ezinbestekoak dira ekonomiarako. Karl Polanyi-ren (2003) kontrako argudioa daukagu honen inguruan, autore honek ez duelako berdin pentsatzen. Coraggio (2011) ez da bakarria izango, izan ere aurrerago aipatuko ditudan Monzon eta Chavesek ere kontra egiten baitiote Polanyi-ri.

Kontraesan horiek alde batera utzita, baina Coraggio-ren esanetan ezinbestekoak diren printzipioak zein diren ahaztu gabe, antolakuntza sozialerako zenbait printzipio zehazten ditu: (1) Ekoizpenaren iturri eta beste baldintza batzuen jabetza, (2) Kooperazioa, (3) Giza-lanaren eta naturaren arteko harremana.

Aurreko hiru aipamenekin banaketaren printzipioak ere lotuta egongo lirateke. Printzipio horiez gain, ekonomia sozial eta solidarioaren barnean sartzen diren ekoizpen, banaketa eta kontsumoaren printzipio batzuk zeintzuk diren ere azaltzen dira hurrengo taulan.

### 2.2.2. Taula 1: Ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren printzipioak

<b>Ekoizpenerako garrantzitsuak</b>	Denontzako lana.
	Langileek, ezagupenerako behar diren formazio guztiak jasotzeko aukera.
	Langileak ekoizpen arloetara sarbide eskubidea edukitzea.
	Kooperazio solidarioa eta ekoizpen sozial arduratsua
<b>Banaketarako garrantzitsuak</b>	Guztion garapenerako justizia eta bermea.
	Bakoitzari bere lan eta baliabideen ekarpen indibiduala
	Besteen lana esplotatzea debekatu.
	Pertsonen eta komunitateen diskriminazioa ukatu.
<b>Zirkulaziorako garrantzitsuak</b>	Autosufizientzia. Auto hornikuntzaren aldeko politika. Komunitate sozietate bakoitza bere baliabide propioekin asetzea
	Elkarrekikotasuna
	Banaketa.
	Trukea eta antolaketa
<b>Kontsumorako garrantzitsuak</b>	Kontsumo arduratsua, beharrezkoa dena bakarrik kontsumitu natura errespetatuz.
	Mesedegarri dira erabiltzailearen sarbide eta autokudeaketa biritza kolektiboari buruz.
<b>Zeharkakoak</b>	Ekimen askea eta berrikuntza sozialki arduratsua.
	Dibertsifikazioa, konplexutasuna.
	Lurraldetasuna

Iturria: Geuk egina. Coraggio (2011) kontutan hartuz

Printzipioak alde batera utzita politikan zentratuko gara, Coraggio-k (2011) gutxienez hiru interpretazio desberdin egiten ditu ekonomia solidarioaren funtzio politikoaren inguruan.

Lehenengo interpretazioari jarraiki, Ekonomia Solidarioa pertsonak lanaren bitartez gizarteratzeko formula bat litzateke, eremu mikroekonomikoan eragiten duena, eta pobrezia egoerak leuntzea duena xede. Interpretazio honek ez dio merkatuari sakoneko kritikarik egiten, eta eraginkortasunaren nozio kapitalista mantentzen du irizpide nagusitzat.

Bigarren interpretazio honek, egungo merkatuetan azpi-sistema bat sortzea du helburu. Ekonomia Solidarioko eragileen arteko sareak sendotuz prozesu ekonomikoaren fase guztietan. Modu horretan balio-kate solidarioak eratuko lirateke egitasmo ezberdinen artean “merkatu sozial” bat osatuz.

Hirugarren eta azken interpretazioari dagokionez, Ekonomia Solidarioa kapitalismoa gainditzeko lanabes gisa ulertzen duena da alegia. Kapitalismoa gainditzeko, Ekonomia Solidarioaren espazioa sektore guztietan zabaldu beharko litzateke, bai esparru publiko eta pribatuetan.

Beste alde batetik, Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta-ren (2014) arabera, zenbait autorek argudiatzen dute Ekonomia Solidarioaren funtzio politikoaren inguruan ez dagoela oraindik koherentzia nahikorik. Coraggio eta Lavelle-ren (2011) iritzitz, ESS-a politikarekin gurutzatzen den ekonomiaren beste alor bat da. Caillé-k (2003) berriz dio, politikak ez duela ekonomiarekin inongo zerikusirik. Horregatik Coraggio eta Lavelle-ren (2009) azken ideia honen kontra agertzen dira, eurentzat ekonomia gaur egun politikaren barnean kokatzen delako.

Laburbilduz Coraggio-ren (2013) esanetan, hiru korrante daude Ekonomia Sozial eta Solidarioaren barnean, lehenago ere aipatuak izan direnak. Lehenik eta behin, lanaren laguntzarekin pertsonon gizarteratzea bultzatzen dutenak. Bigarrenik, ESSaren sektore organiko baten sorrera bultzatzen dutenak eta azkenik, beste ekonomia baten sorrera proposatzen dutenak.

Aurrera jarraituz, Lavelle-k (2009) hainbat hausnarketa egin ditu Ekonomia Solidarioaren inguruan. Metodo kapitalistak azken urteetan jasan duen krisialdi egoera kontutan hartuta, beste ekonomia bat aldarrikatzeko unea eta aukera handia dela aipatzen du autoreak. Izan ere kapitalismoak, ez du gizartearen berdintasunaren alde borrokatzen eta ezta ekologikoki sostengaezinak diren metodoen kontra. Horregatik, Celorio eta al.-ek (2007) aipatzen zuten bezala, lana, ingurumena, kooperazioa, irabazi asmorik gabea eta ingurumenarekin konpromisoa printzipioak oinarrian hartzen duten ekonomia bat sortzeko garaia da, eta hain zuzen, ESS-aren sorrera horregatik eman da.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren barnean aipatu ditugun printzipioez gain, bertan badaude horiek bultzatzeko sortutako erakundeak: kooperatibak, kontsumo arduratsuen taldeak, banka etikoak eta beste hainbeste. Guzti hauek, gizartearentzat ekowitzeko, kontsumitzeko eta finantzatzeko sortuak dira eta dena modu desberdin

batean egin daitekeela erakusten digute, beti ere pertsonak erdian jarriz eta ongizatea bultzatuz. Horregatik, ekonomia hau, natura kontutan hartzen duen, eta ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta banaketa egokia eta kalitatezkoa barne hartzen duena da.

Beste ikuspuntu batetik aztertzeko, Chaves eta Monzón-ek (2018) aipatzen duten bezala, Polanyi-k ematen dion ikuspegian jarraituz, ekonomia hiru esparrutan bereizten dela esaten da: merkatua, estatua eta elkarrekikotasuna. Hiru buru hauek beraien printzipio propioak dakartzate: merkatua, birbanaketa eta elkarrekikotasuna berriz ere.

Chaves et al.-en (2018) esanetan, beste oinarritzko elementu bat ekonomia solidarioaren ikuspuntutik begiratuta, bere parte hartze sozial eta aukeraketarako ekonomia demokratizatzailearen eredia erabiltzea da. Honekin batera proposamen eraldatzaile bat dakar. Proposamen eraldatzaile hori nolabait bi modutan ulertzen da, alde batetik herrialde iberio-amerikarretan, ekonomia solidarioa aldaketa sozialerako eta globalizazio neoliberalerako gizarte alternatibo moduan hartzen da eta beste aldetik, azken urteotan Europan, eta gehiago zentratuz, Espainian, sortu diren mugimendu sozial berriak eta praktika ekonomiko alternatibo berriak, ekonomia eraldatzaile edo alternatibo izena hartzen dute.

Azken modu horretan zentratuta, Monzón eta Barea-k (1995), ekonomia sozialaren ikuspegia landu dute Espainia mailan kokatuz, datu zehatzagoak emanez. Hauen esanetan, ekonomia soziala, partehartze ekonomiaren osagarri nagusietako bat da. Gizarte ekonomiaren enpresek, hots, kooperatibek, mutualitateek, elkarteek eta beste hainbatek, lana ematen diote, guztira Espainiako enpresetan lan egiten duten okupatuen %6ari. Kooperatibak aipatuta, Monzonen hitzetan, unitate produktiboak hobeki irudikatzen duen enpresa mota da. Funtzionamendu eta gestio demokratiko bat erabiltzen dute kapitalaren zati bat helburu sozialetara banatuz.

Solidaritatearen ikuspegitik begiratuta eta Chaves eta al.-en (2018) ustetan Solidario hitza edo kontzeptua Ekonomia Sozialaren “enbor bereko ezpal” gisa ulertu arren, Europa zein Hego Ameriketako landuriko ideia zein kontzeptu ezberdinez elikatzen joan da.

Espainiako ikuspegia Euskal Herrira hurbiltzean, Pérez de Mendiguren eta Etxezarretaren (2014) ikuspegitik begiratuta, Ekonomia Solidarioaren unibertsoa multzo heterogeneo bat da non, jardute enpresarial, esperientzia sozioekonomiko eta ikuspegi teoriko ezberdinetako eragileek osatzen duten. XX. mendeko azken laurdenetik gaur egunera ekonomiaren beste ikuspegi batzuk eta jokatu beharreko paper desberdinak zeintzuk izan beharko luketen azaleratzen dituzte.

Perez de Mendiguren eta al.-en (2014) iritziz, arestian aipatu dugun Coraggio-k esaten zuen bezala, ez da Ekonomia Solidarioaren definizio partekatu argirik existitzen, nahiz eta kontzeptu honek dimentsio bat baino gehiago azpimarratzen dituen. Dimentsio horiek 3 izango lirake: Lehenengoa teorikoa izango litzateke, hau da, ekonomia alternatibo baterako oinarri epistemologiko berriak proposatzen dituen, gaur egungo paradigma nagusiaren kritikarekin abiatuz. Bigarrena, Ekonomia Solidarioa gizarte eraldaketarako proposamen politikotzat ulertzen duena, hau da, eredu

kapitalistaren aurkako alternatibaren eraikitzean datza. Hirugarrena eta azkena, Ekonomia Solidarioaren erabilera enpresa-antolakuntza mota konkretuak izendatzeko, demokrazian, autokudeaketan eta enpresa-kolektiboetan oinarrituriko enpresa motak, hain zuzen ere.

Bigarren puntu horretan aipatzen den proposamen politikoak, ez dira eredu itxi edo bukatu gisa hautematen, prozesu parte hartzaile eta demokratikoetan oinarrituriko trantsiziorako proposamen ireki gisa baizik.

Bukatzeko, hirugarren puntuari jarraiki, Ekonomia Solidarioko erakundeek izaera juridiko eta antolakuntza modu desberdinak hartzen dituzte, baina gizarte-sareetan ondo atxikita agertzen dira guztiak. Gainera, jarduera ekonomikoaren kudeaketan lankidetzaz, elkartasuna eta autokudeaketa bezalako baloreak nagusi izaten dira.

Beste alde batetik, Askunze-k (2015) Ekonomia Solidarioaren definizio orokor bat ematen du, izan ere, Ekonomia Sozialaren eta Solidarioaren artean antzekotasunak existitzen dira, beste aktibitate enpresarial bati hasiera emateko balio dute: “Praktika bat da non ekonomia bide moduan hartzen duten eta ez xede bezala, pertsonen bizitza kalitatea, komunitatea eta ingurumena kontutan hartzen dituzten zerbitzuentzat. Bere aktibitatearen erdigunean pertsonaren bizi ona, kolektiboa eta hala nola bizitzaren iraunkortasuna jartzen duen ekonomia da. Gainera, ekonomia honen funtzio garrantzitsuena, beste esfera sozial, politiko eta kulturalarekin hartzen duen harremana da.”

Azken urtetan, Ekonomia Soziala hazten joan da eta 5/2011 ko martxoaren 29ko legearen arabera, gaur egun jarraian agertuko diren 8 forma enpresarial ezagutzen ditugu: (1) *Kooperatibismoa edo mugimendu kooperatiboa*, pertsonen arteko lankidetzaz sustatzen duen praktika soziopolitiko bat da. Helburua, pertsonen beharrik asetzea kooperatiba izeneko enpresa moten bitartez. (2) *Lan Sozietateak*, gutxienez kapital sozialaren gehiengoa langileen jabetzakoa izatea, pertsonalki eta zuzenean ordaindutako zerbitzuak ematen dituenak. (3) *Desgaitasuna daukaten pertsonekin lan egiten duten zentro bereziak*. (4) *Gizarteratze enpresak*. Laneratzeko enpresatzat hartuko dira honako ezaugarri hauek dituzten ondasunen edo zerbitzuen ekoizpen-egiturak: gizartean baztertuta edo desabantailan dauden taldeak lan-merkatuan sartzeko helburua dutenak, eta, gainera, gizarteratzeko banan banako proiektuak egiten dituztenak, ikasketa prozesu egoki baten bidez, eta prozesu horrekin, enplegarritasunaren baldintzak hobetzen laguntzeko trebetasun sozialak, laneko trebetasunak, oinarritzko prestakuntza, laneko kualifikazioa eta merkatuari buruzko ezagupenak barnean hartzen dituztenak (Lanbide, 2019). (5) *Mutualitateak*: Irabazi asmorik gabeko, estruktura eta kudeaketa demokratikoa burutzen duten pertsonen sozietateak dira. Bertan, borondatezko jarduerak gauzatzen dituzte, Gizarte Segurantzaren aurreikuspen sistemaren osagarri. (6) *Arrantzaleen kofradiak*: Irabazi asmorik gabeko, arrantza-itsasontzi eta sektoreko langileen interes ekonomiko ordezkaririk diren korporazio sektorial publikoak dira. Honen helburu nagusia, bere bazkideen beharren eta interesen asetzea, beti ere garapen lokalarekin, sozialarekin eta ingurunearekin konpromisoa edukiz. Itsasoko arrantzaren eta arrantza orokorraren



antolakuntzaren administrazioa ere aurrera eramaten laguntzen duten korporazioak dira. (7) *Desgaitasuna daukaten eta baztertuak diren pertsonen gizarteratzeaz arduratzen diren erakundeak.* (8) *Fundazioak:* Irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, bere sortzaileen borondatez sortu zena. Ekonomia Sozialaren fundazioek 5/2011 ko legean ezartzen diren printzipioak bete behar dituzte. Nahiz eta aipatutako zerrenda honetan elkarteak ez agertu, komenigarria da azaltzea honek figura oso garrantzitsuak direla ESS-an eta praktikan asko ageri direla. Elkarteak, hiru pertsonak edo gehiagok, fisiko nahiz juridikoak, hala adostuta sortzen duten taldea, helburu berbera lortzeko.

Mota guzti hauek oinarritzko ideia berak partekatzen dituzte, kapitalaren gainetik pertsonak duen balioa, soberakinaren banaketa zuzena eta pertsonen parte hartzea aktibitate ekonomikoetan.

Carlos Askunzeren hitzetan, Ekonomia Soziala praktika multzo bat da non kapitalismoaren alternatibaren balioen eta printzipioen oinarri diren. Finantzak eta kontsumoa sakontasunez eraldatzen dituzte, ekonomia ekologiko, kontsumo lokal, kooperatiboak, kontsumo energetikoak eta merkaturatzearen esparrura ere jotzen dute, estrategia batzuk garatuz bidezko merkatu bat eduki ahal izateko. Horretarako daude gaur egun Merkatu Sozialak, teoria hori praktikara eraman ahal izateko eta baldintza horiek bete ahal izateko.

Ekonomia Solidarioari hasiera ematean aipatu dudana bezala, Celorio eta al.-ek (2007) aipatzen zituzten 6 printzipio horiek (Berdintasuna, lana, ingurumena, kooperazioa, irabazi asmorik gabekoak eta ingurumenarekin konpromisoa dutenak) Carlos Askunzek ere partekatzen ditu eta ondo azpimarratzen ditu (REAS, 2011).

Interesgarria da aipatzea REASEk eta Banka Fiarek eginiko akordioa 2008. urtean. Akordio hori sinatzerakoan, bi norabideko konpromisu bat hartu zuten: (1) REAS-ek Fiare-ren proiektua sustatzea, (2) Fiare-k banka etikoaren bitartez ekonomia solidarioaren mugimendua bultzatzea.

Esan daiteke Fiare ekonomia solidarioko banka etikoa dela REASEk parte hartze esanguratsua eduki duelako bai estatu mailan eta baita euskal lurralde mailan ere. Gainera gaur egun ere, honen egitura kooperatiboaren garapenean laguntzen ari da. Garapen horiez gain, Fiarek erlazio komertzial sozial bat mantentzen du REASEkin "Libreta Redes" ekin. Erlazio horrekin honako gauzak egiteko gai dira: alde batetik, zerbitzu finantzario jakin batzuen garapena sustatzea eta bestetik, REASEk etorkizunera begira produktu finantzario bat egiteko egiten duen ekarpenetan edo ekonomia solidarioaren hazkundera bultzatzean.

Askunze-rekin (2015) amaitzeko, honen esanetan, merkatu soziala, merkatu bat da non entitate eta ekonomia solidarioan dabilzan enpresen arteko elkarlana bultzatzen duten.

Bukatzeko Perez de Mendiguren et al.-en (2014) esanak berriro lanera ekarri nahian, ekonomia pribatu kapitalistaren eta ekonomia publikoaren artean kokatzen den hirugarren sektorea teorizatzeo gaur egun lehian diharduten korrante desberdinak

erabiltzen dira. Esaterako, bi korrante jorratzen dira, irabazi asmorik gabeko erakundeena eta Enpresa Sozialena.

Azken hori kontutan hartuta, interesgarria da aipatzea Ekonomia Sozial eta Solidarioak daukaten desberdintasuna, baina gero batera jartzeak egiten duten ekarpena. Ekonomia soziala ibilbide luzeko errealitatea den neurrian, Ekonomia Solidarioa azken urteetan garatzen hasi den adiera gazteagoa da eta interpretazio ezberdinen arteko eztabaida bizian dago gaur egun. Heldugabetasun hori neurri batean, termino bakarraren pean teorizatu nahi diren errealitate sozioekonomikoen aniztasunari ere zor zaio.

Perez de Mendiguren et al.-ek (2014) esaten duten bezala, nahiz eta Solidario hitzak ekarpen bat egin Ekonomia Sozialari, horren aurka joango diren autore batzuk ere badaude, ezer gutxi gehitzen diola uste dutenak. Kontrara, Ekonomia Solidarioaren interpretazio garbizalegia egiten duen zenbaitek uste izan du bi ideia horiek batzuek Ekonomia Solidarioak duen gaitasun eraldatzailea ahuldu dezakeela, nolabait desitxuratuz Ekonomia Solidarioaren izaera politiko eraldatzailea.

Perez de Mendiguren et al.-ek (2014), Ekonomia Solidarioaren inguruko adiera desberdinak hiru multzotan banatu dituzte:

- 1) *Ekonomia Sozialaren zentraltasuna mantendu nahi dutenak eta Ekonomia Solidarioak lehen horri ekarpenik egiten ez diola pentsatzen dutenak.* Talde honetan Chaves eta Monzon teorialariak daude. Izan ere, egindako lan batean, Ekonomia Sozialari loturiko ikuspegi ezberdinen errebaso bat egiten dute eta bertan bi ikuspegi nabarmentzen dituzte: Mozkinen Besteko Erakundearen ikuspegia eta Ekonomia Solidarioa, ekonomia alternatiboa edo ekonomia herritarra. Ekonomia Solidarioa Ekonomia Sozialaren parte dela esaten dute, baina bestelako garapen teoriko batzuekin ere berdina gertatzen da, gizarte onurako hirugarren sektorea, enpresa soziala, edota ekonomia sozial berria.
- 2) *Ekonomia Soziala, Solidarioa eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa modu bereizgabearen erabiltzen dituztenak.* Talde honetan barneratzen dituzten autoreak CIRIEC-en dihardutenak dira. Baina, Ekonomia Solidarioaren erreferentziako zenbait pertsonaia ere ikuspegi honetan kokatu litezke, Coraggio bera, esaterako. Kasu honetan, Perez de Mendigurenek eta Etxezarretak aipatzen duten Jean François Draperi autoreak proposatzen duen sailkapenari eutsiz Ekonomia Solidarioaren teorialarien artean bi hurbilketa bereiz litezke: politikoa eta unibertsitatekoa.

Bigarren honetan kokatzen ditu Laville eta Eme, beren korpus teorikoa Ekonomia Sozialaren aurkakotasunean eraikitzen dutenak. Ekonomia Sozial eta Solidarioa Ekonomia Sozialaren sinonimo gisa erabiltzen duten autoreak ere badaude, Coraggio esaterako. Berarentzat garrantzitsua ez delako erabiliko den terminologia, kapitalismoaren alternatiba eraikiko duen "bestelako ekonomia" horretarako programa bat izatea edo ez izatea baizik.

- 3) *Ekonomia Sozial eta Solidarioa identitate ezberdinduen arteko aliantza teoriko-politiko baten emaitza gisa ikusten dutenak.* Azkenik talde honek bigarren posizionamendurekin zerikusia dauka baina baditu desberdintzen laguntzen dioten ñabardura batzuk. Talde honetan sartuko dira Frantzia Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruz garatzen ari diren eztabaidetan sumatzen direnak, bertan ematen baita argudiatzen modu hau. Perez de Mendiguren et al.-ek (2014) adibide bezala jartzen dute Laville-k bere lanean “Économie sociale et solidaire, capitalisme et changement démocratique” plazaratzen dituen argumentuak. Laville-k (2010) Ekonomia Sozialaren bilakabideari buruzko ikuspegi oso kritikoa duela ikusten da. Horregatik, Ekonomia Solidarioa Ekonomia Soziala berritzeko erreferentzia gisa proposatzen du. Laville-k (2010) beraz, unibertsitateko hurbilketa bermatzen du, baina Drape-ri (2013) autoreak hori kritikatzeko du. Izan ere, Ekonomia Solidarioaren unibertsitateko hurbilketa teoria hutsean garatzen da eta ez die erakundeek kezka errealei erantzuten.

Crespo eta Galan-en (2014) arabera, biak REASeko kideak, azken urteotan inizatiba asko ugaritu dira ekonomien printzipioetan oinarrituta, merkatuak dituen dimentsio guztietan. Esperientzia hauek guztiak beraien artean konektatzeko eta batera lan egiteko gai badira eta gainera gaur egun sentsibilizatuta dagoen biztanleria batekin batera gai izango dira egungo baldintzak dituen merkaturak aldatzeko. Arestian aipatu dudak bezala, Merkatu Sozialak Ekonomia Solidarioaren praktikaren aplikazioak ulertzeko adibide bezala uler daiteke.

Sortu nahi dugun merkatuari “sozial” izena jartzeak inplikazio bat dakar, hau da, lanean zehar behin baino gehiago aipatu dugun bezala, erdialdean pertsonen eta bizitzaren iraunkortasunaren erlazio ekonomikoak jarri beharko dira. Jarraian, oinarrian jarri beharko diren jarraitu beharreko printzipioak ere ezarri beharko dira, besteak beste, demokrazia ekonomikoa, justizia, ekoizpen eta kontsumoaren arteko koherentzia eta ekonomikoki parte hartzeko eskubidea. Printzipio hauek ez dira bakarrik ekonomia solidarioaren gutunean ezartzen, aldaketa politikoaren eta sozialaren eraldaketan lagundu dezakete.

Ezin gara ahaztu, eskualde bakoitzak eta gune geografiko bakoitzak bere prozedurak, tresnak eta estrategia desberdinak dituela baina gune guzti horietan badaudela guztiak dituzten oinarritzko elementu horiek. Merkatu alternatibo bat hazten joateko hiru baldintza bete beharko ditu: (1) Mugimendu soziala, (2) Gutxienez, eskualde bakoitzean praktika egokiak eta tresna egokiak ezartzeko gai den erakunde adierazgarri bat, (3) Kontsumitzaile arduratsu kopuru bat.

2014. urteko datuak hartuta, baldintza horiek batera betetzea ez zen gertatzen eskualde batean ere ez. Baina bai dago oinarri bat non urteak pasata hazteko gai izango garen, beti ere baldintzak hobetzen badira. Crespo eta al.-ek (2014) martxoaren 15a aipatzen dute mugimendu sozial moduan. Mugimendu sozial horrek, eredu politiko eta ekonomikoaren gutxiespena ekarri zuen eta inflexio puntu bezala balio izan zuen Ekonomia Solidarioko proposamenak ikustera emateko. Lan guztian zehar aipatu ez ditugun Azokak ere existitzen dira Ekonomia Solidarioa bultzatzeko. Komertzializatze

lekua eta espazioa da, non bertan produktu eta zerbitzu desberdinak lortu daitezkeen. Produktu eta zerbitzu desberdin hauek edukitzea garrantzitsua izaten da Askunze-ren (2016) ustetan Merkatu Sozialari “aurpegia” jartzeko eta benetan zer den bisualizatzeko. Horrela entitate desberdinek edo gerturatzen den edozein pertsonen honen inguruko informazioa jasotzeko aukera edukiko du, horrela gizartean informazio hau barneratzen joango da pertsona gehiagotara iritsiz.

### 3. ESS-aren aurkezpena Europan, Estatu Espainolean eta Estatu Frantsesean

#### 3.1. Sarrera

Orain arte aztertu dugun guztia zentzu zabal batean izan da, ingurune handi bat hartuz eta autore bakoitzaren lan batzuk aztertuz, hauen ideiak alderatu ditugu. Lanarekin jarraitzeko eta ezarritako helburuak bete ahal izateko aldiz, Euskal Herrira ekarri beharko dugu ikuspegi osoa eta honen inguruko azterketa bat egin, bertan ditugun autore edo koordinatzaile garrantzitsuekin. Euskal Herrira jarraian salto egin aurretik, lehenbizi Europa mailan Ekonomia Solidarioari buruzko informazioa begiratuko dugu, geroago Estatu Espainolera eta Frantsesera gerturatuko gara eta azkenik Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria aztertuko ditugu. Ipar Euskal Herria aztertzeko Frantziako legedia ere behatu beharko dugu, izan ere, bertako legediarekin bat etorri beharko dira ezarritako helburuak. Horrela interesgarria izango da ondoan dauden bi esparruak aztertzea eta era berean dituzten desberdintasunak eta berdintasunak zeintzuk diren bereiztea herrialde bakoitzaren arabera.

#### 3.2. Ekonomia Sozial eta Solidarioa Europan

Ekonomia soziala XIX. mendearen erdialdean errealitate sozioekonomikoan sartu zen ustekabeen, kooperatibismoaren sorrerarekin batera. XX. mendearen bukaeran Ekonomia Sozial berriaren izena hartuko duelarik. Etxezarreta eta al.-en (2014) esanetan, bi une historiko hauetan, Ekonomia Sozialaren kontzeptuaren garapena 3 agente sozialengatik ematen da: lehenik eta behin, sektoreko agente ekonomikoengatik, sare eta entitate desberdinengatik artikulatuak. Behin sektore hori sozietatean bateratuta aurkezten denean ikaskuntza espezifikorako objektu moduan onartua izango da eta azkenik arduradun publikoek lana egiten duten sektorearen sustapenerako tresna egokiak aukeratzeko.

Etxezarretak eta Lasak (2019) esaten dutenaren arabera, Ekonomia Soziala garapen industrial kapitalistari erantzun bat emateko iturri bezala jaio zen. ACI-n 1995ean ezarri ziren printzipio kooperatibo gehienak, 1844ean Rochdal-en ezarri zirenak izango dira, hala nola, kudeaketa demokratikoa, parte hartze ekonomikoa, hezkuntza eta beste hainbeste.

Gainera, lehen aldiz historian ezarriko da Ekonomia Sozial izena duen kontzeptua esperientzia horiei izena emateko. Kontzeptu hau beste errealitate ekonomiko guztiengatik desberdinduta geldituko da bere izaera moralizatzaileagatik eta baita bere antolamendu eraginkorrenagatik ere.

Etxezarreta eta al.-ek (2019) aipatzen duten bezala, XX. mendearen azken laurdenean, krisi industrialaren garai gorenean, Ekonomia Sozialaren entitate berrien beste inbasio bat ematen da, oraingoan indar gehiagorekin. Frantzia eta Belgikan esaterako, kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak batera antolatzen hasiko dira kontseilu eta

ordezkari desberdinen eskutik. 1980. urtean aldiz, mutualitateen, kooperatiben eta elkarteen ordezkari nazionalak ( National Liaison Committee for Mutual, Cooperative and Associative Activities, CNLAMCA) printzipioen gutun bat argitaratu zuen. Gutun hau izango da Europako lehena elkarte guzti hauen arteko oinarrizko 7 printzipio ezartzen dituen. Printzipioak honako hauek izanik: i) pertsonen nagusitasuna, ii) elkarte boluntarioa, iii) kontrol demokratikoa, iv) interes elkartuaren eta interes orokorraren bategitea, v) solidaritatea, vi) kudeaketarako autonomia eta vii) irabazien banaketarako politika. Printzipioetan egin zen azken aldaketa 2002an egin zen.

Denbora horretan ere sortu zen lehenengo ikerkuntza zentroa, CIRIEC- International izenekoa. Unibertsitateko ikasleen sare honetan, kontzeptuaren inguruko ekarpenak egin zituzten eta gaur egun ere oraindik egiten dira, ikerkuntza estatistikoekin batera, sektoreko ezaugarriak ondo ezagutzeko.

Europari dagokionez, ez dago Ekonomia Sozial edo Solidarioa arautzen duen legerik, Sozietate kooperatibistak arautzeko legedia besterik ez dago: Reglamento sobre la Sociedad Cooperativa Europea (SCE). 2003ko Abuztuan sartu zen indarrean baina 2006an geroratuta gelditu zen. Gaur egun, langile batzuen inplikazioagatik sortutako direktiba batek eramaten du.

SCE-en argi eta garbi daukate, bertan sartzen diren kooperatiba guztiak, pertsonen talde batean daudela, gestio demokratiko batek eramaten duen eredu batean daudela eta pertsonok dutela garrantzia, guztiek irabazien zati berdin bat irabaziz.

2011. urtean onartu zen 2020rako Europako Estrategiarako, Europako estatuen inplikazioa Ekonomia Sozial eta Solidarioarengatik. Beraz, RIPESS Europaren konstituzioan ESSaren inguruko idatzi bat egin zen, horrela hasiz:

“Denbora berean European, ekonomia solidarioa izena hartzen duten esperientzia berri asko sortzen eta hazten dabilta. Autokudeatuak diren ekoizpen kooperatibak, merkatu solidarioak, kontsumo arduratsua, finantzaziorako forma desberdinak eta beste asko. Ekonomiaren aspektu guztietan, ekoizpenean, merkaturatzean, kontsumoan eta finantzetan, bide berriak zabaltzen dituzten erakunde desberdinak sortzen dira”.

Esan beharra dago Europako beste herrialdeetan denboran zehar Ekonomia Sozialaren legea onartzen joan dela Espainiakoa onartua izan eta gero, 2011aren ostean, Portugal, Frantzia, Belgika, Grezia eta Errumania bezalako herrialdeetan legedia onartzen joan dira.

Gaur egun Ekonomia Sozialaren kontzeptuak aitorten juridiko eta politiko garrantzitsuak ditu Europako herrialde desberdinetan. Gainera geroz eta onarpen handiagoa dauka European.

Bukatzeko Monzon-ek (2016) aipatzen duen moduan, Jaques Delorsen mandatuan (1985-1995) izan zen kooperatibismoari eman zioten behin betiko bultzada eta ordutik aurrera bi gertaera garrantzitsu azpimarratzen dira sektore honetan: i) Europako Legebiltzarreko *Social Economy Intergroup-a*, 1990. urtetik aurrera etorri diren irizpen guztiak bertatik datoz eta ii) *Social Economy Intergroup*-aren Europako Ordezkaritzaren

sorrera, bertan ordezkartza daukaten kooperatibak, mutualitateak, elkarteak eta fundazioak daudelarik.

### 3.3. Ekonomia Sozial eta Solidarioa Estatu Espainolean

Europako ikuspegia atzean utzita, Estatu Espainolera gerturatuko gara, gure ingurua pixka bat gehiago ezagutu ahal izateko. Estatu Espainolean, ekonomia sozial eta solidarioak 171milioi euro fakturatzetik, 379milioi euro fakturatzera pasatu da azken hamarkadan. Gainera, espero ez zituzten eta lorrezinak zirenak pentsatzen zituzten sektoretara ere sartu da, hala nola, telekomunikazioa, banka eta energia bezalakoetara. Espainian, El Mundo-ren (2017) azken datuek diotenez, ekonomia sozialak 2.2 milioi pertsoneri ematen die lana, %10eko BPGa sortuz eta ez da bakarrik enpresa handietan gertatzen, enpresa txiki eta ertainetan ere inplikazio handia izan du eta kasu askotan gehiago.

Espainiako legediari dagokionez, esan beharra dago, orain dela 8 urte, 2011an hain zuzen ere, 5/2011 ko martxoaren 29 ko Ekonomia Sozialaren legea onartu zen, lege hori onartzeko beharra zegoelako, izan ere, ekonomia solidarioarekin batera sortzen zeuden erakunde, elkarte eta baita beste zenbait esperientzia asko hazten zeudelako ere.

Legedi hori sortu baino lehenago, Espainian sektore hau 80ko hamarkadan antolatzen hasi zen, COCETA (*Confederación de Cooperativas de Trabajo Asociado*) eta CONFESAL (*Confederación de Sociedades Laborales*) izeneko konfederazioekin. Gaur egun sektorea ordezkatzeko duen lehenengo entitatea CEPES-España da, 1992. urtetik funtzionatzen dagoelarik. Nazioarteko mailari begiraturik, 1990. urtean INFES-en sorrerak eman zion bidea 2011. urtean ezarri zen 5/2011ko Ekonomia Sozialaren legeari.

Beste alde batetik, eta Ekonomia Sozialak eta Solidarioak bere gain hartzen duen sare bat adibide bezala hartuta, Espainian REAS sareak (*Red de Redes de Economía Alternativa y Solidaria*) lurraldeko 14 sare hartzen ditu bere gain eta 1050 pertsona daude gutxi gora behera bertan sartuta. Nazioarteko mailari begiraturik, RIPESSen (*Red Internacional de Promoción de la Economía Social y Solidaria*) ere sartzen dira lurraldeko 14 sare horiek.

### 3.4. Ekonomia Sozial eta Solidarioa Estatu Frantsesean

Frantziako legediari dagokionez, Ekonomia Sozialaren eta Solidarioaren erreferentziatzat hartzen dena, Uztailaren 31ko, 2014-856 legea da. Lege honek ESS-a modu zabal batean ulertzen du eta baita aktibitate ekonomiko guztietan erabili daitekeen tresna gisa ere, aktibitate horiek, ekoizpena, trukea, eraldaketa, banaketa eta zerbitzu eta ondasunen kontsumoa izanik. Gainera, Frantziako Legediak, European ezartzen diren oinarriko lau kontzeptu nagusi hartzen ditu.

Kooperatiben legediaren aldetik, orain dela 70 urte sortutako legedian barne dago, 1947ko Irailaren 10ean sortutako 47-1775 legea. Horrela definitua gelditzen da

kooperatiben definizioa Frantziako legedian: Kooperatiba pertsona batzuek borondatez sortzen duten sozietate bat da, beraien behar ekonomiko eta sozialak asetzeko.

Mutualitateak arautzeko ere beste legedi bat daukate, 2011ko Apirilaren 19ko 2001-350. ordenantza esaterako. Asoziazioa, aldiz, horrela definitzen da: Irabaziak banatzeko helburua ez duten pertsona bat edo bi elkartzean egiten duten akordioa beraien arteko ezagutzak partekatuz. Azkenik, fundazioa, pertsona fisiko edo juridiko batek edo bat baino gehiagok atzera ezinak diren ondasun, eskubide eta baliabideen obra eta irabazi asmorik gabeko gauzatze bat egiten duten.

Arestian aipatu dugun bezala, Frantziako estatuan 2014ko Uztailaren 21ean onartu zen Ekonomia Sozial eta Solidarioaren legearen azken testua. Testu hau, Benoît Hamon izeneko, frantses politikari gazteak idatzia izan zen. Parlamentuan onartua izan zen Frantziar estatuan sektore honen sustatzea helburu izanik.

2018ko Azaroaren 29an aldiz, beste paktu bat aurkeztu zuen Frantziako Gobernuak, *Pacte de Croissance de l'Économie Sociale et Solidaire*, izena hartu zuelarik. Paktu horren helburua, aurkezpenean bertan azaldu zuten. Honekin, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eragina eta praktikan jardutzen duen indarra handitzea eta ESS-a gaitzerrenda Europarrian eta Internazionallean, erdigunean ezartzea da (Portal de Economía Solidaria, 2018). 2018ko azken datuek ziotenez, Ekonomia Solidario frantsesean parte hartzen dutenak 200.000 enpresa dira, 2,3 milioi langilerekin.

Badago Kooperatiba mota berri bat, eta honi buruzko araudia, 2001ko ekainaren 17an sortu zen, 2001-624 legearen eskutik. Kooperatiba mota horrek, (Scic), izena hartzen du. Espainiako kasuan ez da horrelako legedia existitzen. Scic-a merkataritza kodearekin arautzen da bere forma juridikoari dagokionez. Sozietate honek hartzen duen forma Sozietate Anonimoa (SA) edo Sozietate Anonimo Sinplifikatua (SAS) izan daiteke. (Les SCIC, 2019)



## 4. Ekonomia sozial eta solidarioa Euskal Herrian

### 4.1. ESS-a Euskal Autonomia Erkidegoan



4.1.1. Irudia 1: Euskal Autonomia Erkidegoa

Estatu maila atzean utzita, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aitzindarietako bat izan da, eremu global batetik ere erreferente moduan ikusita.

Hego Euskal Herrian hartzen den legedia, lehendabizi Europatik dator, Sozietate Kooperatibatik datorren araudiarekin batera. Araudi hori Espainiara igaroz ailegatuko da EAE-ra eta Nafarroako Foru Erkidegora behar den bezala.

Izan ere Euskal Herrian egon zen eta gaur egun enpresa askoren izaera den kooperatibismoaren mugimenduak indar handia eduki zuen. Ezinbestekoa da aipatzea Mondragon Taldea. 1956. urtean hasi zen, baina hiru urte itxaron behar izan zuten estatutuak onartuak izan arte, hain zuzen 1959ko maiatzera arte.

Etxezarreta eta al.-en (2019) ustetan, Euskal Autonomia Erkidegoan, Ekonomia Soziala ondo antolatuta dago gaur egun existitzen diren entitate bakoitzarengatik, EAEn Kooperatiben Konfederazioa (KONFEKOOP), Euskadiko Lan Sozietateak (ASLE), Desgaitasunak dituzten pertsonen gizarte eta lan txertatzea (EHLABE) eta Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte (GIZATEA) bezalako elkarte eta sozietateak daude eta hauek osatzen dute EAE-ko Ekonomia Sozialeko lau familia handiak. EAE-n badago indar handia duen eta Ekonomia Solidarioaren eta alternatiboaren promotorea den beste elkarte bat, REAS Euskadi izena hartzen duena. Aipatutako elkarte guztiak barneratzen dituen elkarte nagusia, EGES izeneko sarea da.

REAS Euskadi adibide bezala hartuz, honek eginiko eginkizunak azalera ziko ditut, EAEko erreferentzia bat edukitzeko. REAS Euskadik, EAE-ko Ekonomia Sozialerako proposamenak egin zituen, hauetako gaiak zirelarik garrantzitsuenak: (1) Ekonomia Solidarioaren onarpena Ekonomia Sozialaren ingurunean, (2) Euskal Herrian ekonomia solidarioaren promozioa egitea, (3) Ekonomia solidarioa eta inklusio sozial eta laborala.

REASEk, ekonomia sozial eta solidarioaren inguruko informazio asko biltzen du eta gaur egun gai honen inguruko iturri oso garrantzitsu bat da. REAS Euskadi eta Nafarroa hartuko ditugu eredu moduan atal honetarako, EAEn bertan gaudelako eta Nafarroako Foru Komunitatea ere gertukoa dugulako. Horrela, interesgarriagoa izango da geografikoki ondoan dauden bi toki hauen inguruko desberdintasunak ikustea eta baita ekonomia solidarioaren jokaera nora daramaten ikustea, bai ekonomiaren eta politikaren aldetik.

Arestian aipatu dudak bezala REAS Euskadi 1997. urtean sortu zen eta REAS Nafarroa, zertxobait beranduago, 2003. urtean esaterako. Nahiz eta Nafarroan 2003. urtean sortu, aurretik erakunde asko ibili ziren honengatik borrokan, Nafarroa izanik, aurrerago agertuko den bezala, ESS-aren fundatzailetako bat.

#### 4.1.1. Taula 2: Reas Euskadi eta Reas Nafarroa

REAS EUSKADI (2019)	REAS NAFARROA (2019)
Gaur egun 74 entitate biltzen dituen sarea.	Gaur egun 50 entitate biltzen dituen sarea.

Iturria: Reas Euskadi eta Reas Nafarroa

REAS sareak, Ekonomia Solidarioaren barne dauden, Ekonomia Solidarioaren gutunean jasotako 6 printzipioak bultzatzen ditu:

- Ekitatea: printzipio etikoa edo justizia txertatzen du berdintasunean.
- Lana: funtsezko elementua da pertsonen eta komunitatearen bizikalteterako, eta hiritarren, herrien eta Estatuaren arteko harreman ekonomikoetarako
- Ingurugiro iraunkortasuna: gure ekoizpen- eta ekonomia-jarduera guztia naturarekin lotuta dago, eta horregatik eduki behar dugu aliantza naturarekin. Naturarekin eduki behar dugun harremana ona bada, aberastasun iturria izango da eta horrela guztiontzako osasungarria.
- Lankidetzeta: lehiaren ordeztu lankidetzeta sustatu nahi dute, bidezko harreman komertzialak, berdintasuna, konfiantza, gardentasuna, errespetua..
- Irabazi-asmorik gabea: pertsonen garapen integrala, kolektiboa eta banakakoa dute helburu beraz, horretarako “irabazi asmorik gabeko” jokabide hori oso lotuta REASEk emaitzen balantzea neurtzeko duen moduarekin.
- Inguruarekin konpromisoa: lurraldearen tokian tokiko konpromisoarekin bultzatuta gauzatzen dute inguruarekiko konpromisoa.


Egia esanda, 6 printzipio hauek lehenago ere ikusi ditugu, autore askoren esanetan ere hauek direlako oinarrikoak. Gainera, Ekonomia Solidarioaren Gutun horretan argi eta garbi azaltzen dute Ekonomia Solidarioa bizitzeko modu bat dela, pertsonen integritasuna barne hartzen dutela eta ekonomia bere egiazko helburuaren mende jartzen duena: gizakiaren garapen pertsonalerako, eta gizarte eta ingurumenaren garapenerako behar diren oinarri materialak modu iraunkorrean eskaintzeko. (REAS EUSKADI, 2011)

Sarean bertan diharduten erakundeek eta orokorrean ekonomia solidarioaren aldeko mugimendua jarraitzen dutenek zeharkako ardatz hauek hartzen dituzte eginkizuna betetzeko.

- Askatasunerako eta ardura partekatua izateko oinarria autonomia da.
- Autokudeaketa metodologia egokia da, honekin errespetatu egiten delako, inplikazioa lortzen da, aukerak partekatzen dira eta beste hainbat gauza.
- Kultura askatzailea da pentsamendu sortzaile, zientifiko eta alternatiboetarako oinarria.

- Pertsonen garapena dimentsio eta ahalmen guztietan: fisikoak, psikikoak, estetikoak, sentikorak... naturarekiko harmonian garatu beharko dira, hazkunde desorekatu ororen gainetik.
- Naturarekin bat etortzea
- Giza elkartasunak eta elkartasun ekonomikoak gure tokian tokiko harremanen harreman nazionalen eta internazionalen oinarri izan behar du.

4.1.1. *Grafikoa 2: Ekonomia solidarioaren aldeko ardatzak*




*Iturria: Geuk egina. REAS Euskadi kontutan hartuz (2011)*

#### 4.2. ESS-a Nafarroako Foru Komunitatean

Nafarroako REAS-ek (2018) egin zuen ikerketa batean, Ekonomia Solidarioarentzat definizio hau eman zioten: “Aktibitate ekonomikoaren ikuspegi bat da non lehentasunez edozer gauzaren gaitetik, pertsonak, ingurumena eta garapen iraunkorra kontutan hartzen dutena”.

Baina aipatu beharra dago, EAE mailan REAS-Euskadik indarra duen moduan, Nafarroako entitateak, CEPES-Navarra-ren inguruan antolatzen dela. Nafarroako Ekonomia Sozialaren enpresen Elkarte (ANEL), Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiba (UCAN), Nafarroako Gizarteratze eta laneratzeko zentroak (CIS) eta azkenik, arestian aipatutako Nafarroako Ekonomia Solidario eta Alternatiboaren sarea (REAS) dira.



**4.2.1. Irudia 2: Nafarroako Foru Komunitatea**

Ekonomia Sozial eta Solidarioa bizitzeko modu bat da, pertsonon integritatea kontutan hartzen duena eta ekonomia bere benetako helburura gidatzen duena. Helburu hori, garapen pertsonalerako, sozialerako eta ingurumenerako modu iraunkor batean hornitzeko izango litzateke. Arestian aipatutako baloreak ere barneratzen dituzte, izan ere REASEk bere gutunean ezartzen dituenak dira; ekitatea, justizia, anaitasun ekonomikoa, solidaritate soziala, demokrazia zuzena. Balore hauek unibertsalak dira, sozietatean egon beharko liratekeenak eta baita hiritarren erlazioetan. Gainera, ekoizteko, kontsumitzeko eta banatzeko metodo berri batek, alternatiba hobea eta iraunkorrago batean bihurtuko du mugimendu hau, horrela beharren asebetetze individual eta globalarekin gailu transformatzaile sozial batean bihurtaraziz.

#### 4.2.1. Taula 3: REAS Nafarroako elkarteak

Las entidades que han participado en este proceso han sido:

Txalaparta	Gure Sustraiak	Pasta Martinelli
Embeblue	Setem Navarra-Nafarroa	Fundación Elkarte
Reas Navarra	Transforma	Nafarkoop
La Majari	Mugarik Gabe Nafarroa	Jauregia
Microfides	Ocsi	Farrachucho
Villa Javier	Beitu	Traperos
Hegoak	Eurolan	Bioklima Nature
Fundación Banco de	Fundación Gaztelan	Landare
Alimentos	Heda	Inseriantxo
Paris365	Nommad	Arterra Bizimodu

#### *Iturria: REAS Navarra (2018)*

Nafarroako Garapen Ekonomikoaren departamentuak (2017-2020) urtetarako Nafarroako erakunde desberdinak elkartuz, plan integral bat egin zuten. Honen zergatia, Nazio Batuetako Batzar Nagusian 2015 eko Irailaren 25ean onartu ziren 2030 urterako egon beharko liratekeen 17 garapen iraunkorrerako helburuak betetzeko izan zen. Epe horretarako herrialde guztiek eduki beharko dituztelako oinarri ekonomiko batzuk, non ekonomia iraunkor eta inklusibo baten alde egingo duten. Hau posible izango da beste

faktore batzuk ere kontutan hartzen badira, hala nola, aberastasuna banatzea, honekin sarreren desberdintasuna murriztuz. Horregatik lanean jarraitu behar da ekonomia dinamikoak, iraunkorrak, berritzaileak eta pertsonetan zentratzen direnak eraikitzeko, gazteriaren lan egoera hobetzeko lehenik eta emakumezkoen ahalduntze ekonomikoa hobetzeko eta egonkortzeko azkenik.

Nafarroako plangintza integralean aipatzen duten bezala (2017), Ekonomia sozialean baneratzeko diren erakunde eta enpresa desberdinak zeintzuk diren jakinda, Nafarroan pixka bat egokitzeko bi erakunde mota desberdin hartuko ditugu hauen joera Nafarroan zehar zein izan den azalduz eta zein erakunderen barnean sartzen diren esanez.

Alde batetik, Lan Sozietateak eta Lan Elkartuko Kooperatibak azken urte hauetan hazten joan dira enpresa berrien eraketak bultzatuta. Gaur egun, lanaren herenaren bikoitza Lan Elkartuko Kooperatibaren barne kokatzen da. Gainera, bizi izan dugun krisi ekonomikoaren geroztik, lan egoera bere egoera normalera gerturatzen doala diote.

Egoera hori egiaztatzen dituen datu batzuk ditugu, izan ere 2017an, Euskal Autonomia Erkidegoan, Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiaren (2018) arabera, 2223 kooperatiba eta lan sozietate zeuden 68648 langilerekin. Honekin jarraituz, Nafarroa, EAE-rekin eta Murtziarekin batera, enplegu Kooperatibista eta Lan Sozietatearen ehuneko handiena duten herrialdeak dira, hala nola, %180a edukiz nazioko batz bestekoaren gain eta baita, hiru hauek, Nafarroa, EAE eta Murtzia, dira enplegu sozial handiena erregistratzen diren lurraldeak Espainian.

Nafarroako Kooperatibak eta Lan Sozietateak ANEL izeneko asoziazioan baneraturuta daude. ANEL, 1981ean sortu zen eta enpresen %40a hartzen du enpleguaren %60arekin batera. Asoziazio hau, Nafarroako garapen ekonomiko eta sozialaren orientaziorako egokia da.

Bestetik, Nafarroan dagoen beste kooperatiba nagusi bat, Nekazaritzako Elikagaien kooperatiba da. Kooperatiba mota honek, ekonomia sozialean baneratzeko diren nekazari eta baserritarrei egiten die erreferentzia. Talde honetan sartzen dira beti honetara dedikatzen diren pertsonak edo urtean zehar sasoi desberdinetan lanean diharduten pertsonak. Erakunde honengatik ez bazen, pertsona guzti horien lana ezinezkoa izango litzateke eta askok ezin izango lukete honengatik bizi, ez liratekelako errentagarriak izango. Kooperatiba txiki askoren kasuetan, beraien arteko elkarketa burutzea ekarri du, horregatik kooperatiba asko desagertu dira baina fakturazioa bikoiztu egin da, enplegua ere nabarmen haziz. Beraz, argi gelditzen da Nafarroan Nekazaritzako Elikagaien kooperatibak garrantzia handia duela eta sektoreko erreferenteetako bat AN Taldea izanik, hau orain dela bi urtetatik gutxi gora behera Lehenetsuneko Asoziazio Entitate bezala aitortua izan den. Azkenik, sektorea utzita eta Kooperatiba osoan zentratuz, kooperatiba talde guztiaren talde nagusia UCAN da. 1987an sortutako erakunde enpresarial bat da eta bere gain hartzen ditu Nekazari Kooperatiben %80a.

Ekonomia soziala alde batera utziz, ekonomia solidarioari ere erreferentzia egin behar diogu Nafarroaren ikuspuntutik. Izan ere, arestian aipatu bezala, ekonomia solidarioak

autore gehienek esanetik gainbalio bat ematen dio ekonomia sozialari. Beraz, ekonomia solidarioa, bere orientazioa zein den argi daukan mugimendu bat da. Bere gain hartzen ditu, orientazio soziala, kooperazioa, berrikuntza, gertutasuna, iraunkortasuna, komunitatea, solidaritatea, ekoizpena, kontsumo arduratsua eta baita banka etikoa ere. Denbora luze baten egon da gure aurrean baina azken urte hauek arte ez dugu asko jakin mugimendu honi buruz. Baina praktika ekonomikoetan argi eta garbi ikusi izan dugu eta gaur egun mundu osoan ikusi daitekeen mugimendua izanik, tendentzia berritzaile eta eraldatzaile batekin dator, jasan dugun krisialdi ekonomikoaren ostean.

Lehenago aipatu dugun bezala, Ekonomia Solidarioaren erreferentziatzat hartzen dugu REAS erakundea, Nafarroan ere badu bere tokia eta 52 entitate edo irabazi asmorik gabeko enpresak barneratzen ditu. Enpresa horiek, 450 pertsonari ematen diote lana Nafarroan eta 3100 pertsona boluntario bezala egiten dute lan. Ezagunenak diren enpresak, Traperos de Emaus, Gaztelan, Paris 365 edo Landare dira.

### 4.3. ESS-a IPAR EUSKAL HERRIAN

Atal honetan Euskal Herriaren parte den beste lurralde bati aurkezpena eginez sartuko gara Ekonomia sozial eta Solidarioak bertan eduki duen inpaktuaren inguruan hitz egitera. Ipar Euskal Herria, guregandik oso gertu dagoen beste estatu bateko parte da. Jende askok Euskal Herri Frantzesak deitzen dio, nahiz eta Espainiatik gertu egon, Donostiatik kilometro gutxi batzuetara, beraien legedia daukate, eta estatu Frantzeseko parte dira.



**4.3.1. Irudia 3: Ipar Euskal Herria**

Hain ondoan dauden Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Ipar Euskal Herria, baina parte diren estatuarengatik hainbesteko diferentzia eduki ditzaketen legediak, politikak, ekonomiak eta bizimoduak dena aldatzeko hasiera izan daiteke. Horregatik, EAE-ko eta Nafarroako eredia pixka bat aztertutik, Ipar Euskal Herriarekin hasiko naiz, estatu Frantzesaren parte izanik, bertako legediarekin hasita dauden desberdintasunak adieraziz.

Ekonomia sozialak hartzen duen oinarritzko araudia Espainian eta Frantzia antzerakoak dira, nahiz eta legea izatez desberdina izan bi herrialdeetan, oinarria parekoa da: kooperatibak, mutualitateak, asoziazioak, erakundeak eta arestian zenbait alditan aipatu ditugun beste guztiak bermatzen ditu.

Ipar Euskal Herrian berezko Euskal instituzioak ezabatuak gelditu ziren Frantziako Iraultzarengatik. 200 urteren ostean, 2017ko urtarrilaren 1ean entitate publiko batek argia ikusi zuen, Euskal Hirigune Elkargoa (Communauté d'agglomération du Pays Basque) deiturikoa aurkitu zuenean. Entitate hau Ipar Euskal Herri osoa hartzen duen hirigune elkargoa da eta sorreraren helburua egituraketa administratiboa lortzea izan zen. Elkargo hau lortzeko bertako biztanleriak bozkatu egin behar izan zuen. Elkargo

honekin ematen zaion eskubideetako bat garapen ekonomikoa bultzatzeko araudia da baina lan honetan guretzako garrantzitsua denari dagokionez, hau da, Ekonomia Sozialari dagokionez, ez dauka ahalmen hori. Gaur egun, Elkargo honentzat aplikagarri den legedia, marko juridiko Frantzesak duena da.

Ipar Euskal Herrian Ekonomia Sozialak, 70 eko hamarkadan mugarri garrantzitsu bat finkatu zuen abertzale mugimenduak bultzatuta, tokian tokiko garapenaren aldeko mugimendu sozialak osatzen hasiko zirelarik. Hego Euskal Herriko mugimendu kooperatibistak Iparraldeko lehen kooperatibaren sortzea bultzatuko du. 1974tik aurrera hasiko da langile kooperatiben mugimendua indarra hartzen Patzuer elkartearekin. Jarraian, ELB sindikatua (nekazari txiki eta iraunkorren sindikatua) 1980an abiatuko da eta 1991an Arrapitz Federazioa. 2000ko hamarkadan, ekoizpenari eta lanari, kontsumoaren eta elkartrukearen arloak gehituko zaizkio. Urteak aurrera eginez, 2012an euskal moneta “euskoa” plazaratuko da. Ekintza guzti hauekin, Hego Euskal Herriarekin ere harremanak sendotzen joango dira, nekazaritzan, euskaran, kulturean, komunikazioan eta hedabideetan.

## 5. Ondorioak

Ekonomia sozialaren hasiera, 1844. urtean eman zen “Sociedad Equitativa de los Pioneros de Rochdale” en sorrerarekin batera. Denborak aurrera egin ahala ekonomia sozialaren inguruko legedia zabaltzen joan da. Honen inguruko legedia eta definizioak aldatuak izan daitezke gauden herrialdearen arabera. Espainian adibidez, sozialki eta legalki definituta gelditzen da. Legalki hartzen duen definizioa, 5/2011ko Martxoaren 29ko legeari dagokio. Sozialki hartzen duena aldiz, autore desberdinek diotena izan daiteke.

Ekonomia Solidarioari dagokionez faktore, tresna eta estrategia guztiak gune geografiko edo eskualde guztietan berdinak ez direla diote, baina oinarria parekoa dutela baieztatzen dute. Azkenean, guztiak jartzen dute pertsona eta honen bizi kalitatea erdialdean, berdintasunarekin batera eta baita ingurumenaren aldeko ardurarekin batera. Gainera, solidario hitza ere lan aukerarik ez duten pertsonentzat ere zuzenduta dago, hau da, gizartearengatik baztertuta sentitu diren eta baztertu diren pertsona guztiei zuzenduta.

Izan ere, Ekonomia sozial eta solidarioa esaldi batean sartzeak, zerbait aldatu daitekela ematen du. Autore askok, solidaritate hitza gehitzeak eraginik egiten ez diola diote. Jarri edo ez jarri esanahia berdin mantentzen dela baina kasu honetan, aipatu ditugun autore gehienek bai desberdintzen dute esanahia, batzuek besteak baino gehiago diferentziatu arren. Beste batzuek, ekonomia solidarioa ekonomia sozialaren adarretik hazten dela diote. Nahiz eta eztabaida hauek sortu, ezin dugu ahaztu ESSaren helburuetako bat pertsonoi eta hauen komunitateari laguntzea dela eta ekonomia ulertzeko beste metodo bat dela.

Ekonomia solidarioaren inguruko teoria desberdinak aztertu ostean, alde batetik Gloria Celorio eta Johnny Jimenezen esanetan alegia, argi daukate komunitateak indar handia duela ekonomia solidarioan. Komunitatean lan egiteak asko laguntzen baitu eta bisio eta praktika erreibindikatzailer bezala definitzen dute. Coraggiok ildo beretik aipatzen du ekonomia solidarioa sistema ekonomiko bat dela non honen funtzionamenduak gizarte duin eta berdintsu bat ziurtatzen duen eta baita proiektu kolektibo baten moduan ulertzen du, bere ikuspegia ekonomia alternatibo batean finkaturik.

Beste alde batetik, Chaves eta Monzon ditugu, gertuagokoak, ESS-aren bi proposamen eraldatzaile egiten dituztenak: bata, iberoamerikarren ikuspegitik eta bestea Europarren ikuspegitik. Iberoamerikarren ikuspegia hartuta, hauek, gizarte alternatibo baten sorrera moduan ulertzen dute Ekonomia Solidarioa. Europarren kasuan aldiz, ekonomia alternatibo baten sorrera moduan ulertzen dute. Beste batzuek aldiz, Perez de Mendiguren eta Etxezarretaren kasuan adibidez, ESS-a gehiago lotzen dute jardute enpresarial, esperientzia sozioekonomiko eta ikuspegi teoriko ezberdinetako eragileek osatuta. Esan daiteke, oraindik ez dagoela ekonomia solidarioaren definizio partekaturik.



Europari dagokionez, ez dago Ekonomia Sozial eta Solidarioa arautzen duen legerik, Sozietate kooperatibistak arautzeko legedia besterik ez dago (SCE). Nahiz eta legedia zehatzik ez egon, badaude hori aurrera ateratzeko balio duten elkarte desberdinak, mutualitate, kooperatiba eta elkarten ordezkari nazionala den CNLAMCA adibidez.

Espainiari dagokionez, Ekonomia Sozialak berak 5/2011ko lege propioa dauka, dena bertan erregulatuta gelditzen da. Ekonomia sozial bezala hartzen diren erakunde guztiak izendatuta daude eta printzipioak ere bertan ageri dira. Honako hauek dira erakundeak; kooperatibismoa bultzatzen dutenak, lan sozietateak, desgaitasuna daukaten pertsonekin lan egiten duten zentro bereziak, gizarteratze enpresak, mutualitateak, arrantzaleen kofradiak, desgaitasuna daukaten eta baztertuak diren pertsonen gizarteratzeaz arduratzen diren erakundeak, elkarteak eta azkenik, fundazioak. Printzipioei dagokionez, gehienbat agertu direnak, ekitatea, lana, ingurumenarekiko iraunkortasuna, kooperazioa, irabazi asmorik gabekoa eta ingurunearekin konpromisua izan dira. Frantziako kasuan aldiz, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren legea sortu zen 2014. urtean. Lege horrek ESS-a modu zabal batean ulertzen du eta baita aktibitate ekonomiko guztietan erabil daitekeen tresna gisa ere. Lege berri horrekin, 1980an argitaratutako "Ekonomia Sozialaren Printzipioen Gutunaren" bitartez lortutako aitortza sendotu egin zen.

Egia da, legean ezartzen diren printzipioak horiek direla, baina autore bakoitzaren arabera eta gune geografikoaren arabera printzipioak aldatuz joaten dira, beti ere oinarrian dagoen bat berdina izanik.

Estatu mailako legediak alde batera utzita eta hiru lurraldetara begiratu, Euskal Autonomia Erkidegoa, Ipar Euskal Herria eta Nafarroako Foru Komunitatea, zenbait gauzarekin aurki gaitzke. Elkarte desberdinak daude eremu bakoitzean, legedia ere desberdina da, EAE eta Nafarroa Espainiaren barne daudelako eta Ipar Euskal Herria Frantziaren barne. EAEn garrantzitsua da aipatzea kooperatiben taldean daukagun Mondragon Taldea. Horrez gain elkarte asko daude, REAS Euskadi sarea eta Euskadiko Lan Sozietateak (ASLE) adibidez. Nafarroari dagokionez, REAS Nafarroaren sarea ere badago, baina CEPES Navarrak ere bere garrantzia du bertan. Ekonomia Sozialaren enpresen elkarte (ANEL) ere garrantzitsua da, Nafarroako Gizarte eta Laneratze zentroak (CIS) bezala. Ipar Euskal Herrian ere badaude langile kooperatiben mugimendua indarra hartzen Patzuer elkarte eta ELB sindikatua (nekazari txiki eta iraunkorren sindikatua) 1980an indartu zena.

Estatu eta lurralde desberdinen legediak alde batera utzita, autore desberdinek dituzten ikuspegiak aztertuko ditugu, beraien arteko desberdintasunak eta berdintasunak azalduz. Hasteko, politikaren inguruko gatazkak edo iradokizun desberdinak ere egon dira. Coraggio eta Lavillek adibidez, Ekonomia sozial eta solidarioak politikarekin zerikusia duela esaten dute. Hauen esanetan, ESSa politikaren alorrarekin gurutzatzen den ekonomia alorreko beste alor bat da, hau da, nahiz eta beste ekonomia alternatibo bat izan, politikarekin beti ere gurutzatuko da, onerako edo txarrerako.

Beste autore batzuen ekarpenegatik aterata, hegoamerikar ikuspegitik begiratuta, Ekonomia Sozial eta Solidarioa proposamen ireki bat izan ohi da, berrikuste edo moldaketa berriei zabalik egongo dena eta inola ere ez dela “errezeta” bezala aurkeztua izango. (GURIDI et al., 2011) Errezeta horrekin ulertzera ematen diguten teoria hau da, Ekonomia Sozial eta Solidarioak ez dituela toki guztietan ekintza edo kontzeptu teorikoa, praktikoa eta estrategikoa berak bete behar, ez da teoria bat guztiz oinarri moduan hartu behar eta hori bere osotasunean gizartean aplikatu. Herri, lurralde eta gune geografiko desberdinetan gorabeherak jasango ditu.

Azkenik, Blanca Crespok, Fernando Sabineke eta Carlos Askunzek aipatzen duten bezala, Ekonomia Solidarioa teoria bezala harturik, hau praktikan eraginkorra den ikusteko, Merkatu Sozialak sortu dira. Bertan ESS-arekin sortu diren produktu eta zerbitzuak eskaintzen baitira eta edozein publikori zuzenduta daude.

### III. ZATIA : Landa azterketa

#### 6. Emaús gizarte fundazioa, Euskal Moneta eta Geltoki

##### 6.1. Sarrera

Teoriak eta toki bakoitzeko legediak alde batera utzita, gertutik Ekonomia Sozial eta Solidarioaren praktika nolakoa den ikusiko dugu. Lan guztian zehar ikusi dugun bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian elkarte eta erakunde desberdinak existitzen dira, egunero Ekonomia Sozial eta Solidarioaren parte diren faktore desberdinei laguntza ematen diotenak eta geroz eta indar gehiago ematen diotenak.

Lurralde horietan ESSaren kontzeptua zehaztu ondoren, gure lana orain hiru lurralde bakoitzetik elkarte edo erakunde bat hartzea izango da egin nahi den landa azterketa burutzeko. Lehendabizi lan honekin bete nahi genituen helburuak zeintzuk diren aurrean jarri eta hori oinarrian hartuz galdetegi bat prestatu genuen, 13 galderarekin gutxi gora behera eta aurreikusitako denbora 30 minutu izanik, horrela galdera guztiak ondo erantzuteko denbora izanik. Behin galdetegia prest genuela, galdera horiek egiteko Ekonomia Sozial eta Solidarioan lana egiten duten elkarte edo erakunde batzuetan kontaktuan jarri ginen, beti ere lehenbizi beraien jarduera zein zen eta burutzen zutena lanerako interesgarria zen edo ez begiratzuz eta jarduerak alderatuz, berdintasunak eta desberdintasunak ateratzeko ahalmena emango zuten begiratzuz.

Kontaktuan jartzeko e-maila erabili dugu. Elkarrizketa burutzeko, elkarrizketa pertsonalak izan dira. EAE-ri dagokionez, Emaús gizarte fundazioa aukeratu genuen. Nafarroari dagokionez, Iruñeako Geltoki-a, geltoki zaharra zena hartu eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren gune bilakatu duten proiektua. Azkenik, Ipar Euskal Herrian, Euskal Monetaren elkarte aukeratu genuen, tokiko moneta edukitzearen nondik norakoak jakitea interesgarria zelako.

Behin hiru elkarte horiekin kontaktuan jarrita eta erantzuna jasota, toki desberdinetan elkartu ginen elkarte bakoitzeko pertsona batekin, Alberto, Xebax eta Kristirekin gure kasuan. Hiru hauei galdera berdinak egin dizkiogu elkarrizketa bakoitzean eta gure landa azterketa hau izango da, ESS-an diharduten elkarteen arteko pentsaera, jarduera, egitura juridikoa, etorkizunera begira duten ikuspegia, jarrera eta abar zein diren jakitea.

## 6.2. Emaús gizarte fundazioa, Euskal Montea eta Geltokiaren landa azterketa.

Euskal Autonomia Erkidegoarekin hasita, Emaús Gizarte Fundazioa aukeratu dugu. Lanerako interesgarria dela iruditu zaigu hasiera batetik, bere filosofia lanean aipatu dugun gauzekin bat datorrelako. Lan hori gertutik ikustea aberasgarria dela deritzogu, praktikan Ekonomia Sozial eta Solidarioaren teoriak nola aplikatzen diren edo eta beraiek teoria horiekin eta printzipio horiekin nola sentitzen diren ulertu eta ikasi ahal dugulako. Beti izaten da zaila teoria bat errealitatean praktikan jartzea, horregatik aukeratu dugu erakunde hau, EAEn Ekonomia Sozial eta Solidarioa beraiek nola ezagutu zuten, nola dagoen eta etorkizunera begira nola ikusten duten jakiteko.

Geroago, Frantziarantz jota, Euskal Moneta elkarte aukeratuta, Ipar Euskal Herriko egoera zein den aztertzen saiatu gara bertako moneta ezagutuz. Bertan dauden legedia desberdinekin eta elkarte mota desberdin bat gertutik ezagutuz, atera ditzakegun ondorioak interesgarriak izan daitezkeela uste dugulako.

Azkenik, Nafarroara jaitsiz, Iruña hirian dagoen Geltoki izeneko proiektuaren berri izanda, lan honekin bat zetorren tokia zela iruditu zitzaigun. Bisio, misio eta filosofia guztia hartzen du bere gain eta errealitatea nolakoa den ikusteak intriga sortu zigun.

Hiru elkarte hauek aukeratzearen zergatia pixka bat azalduta, hauetatik atera dugun informazioa modu ordenatu eta ulergarri batean azaltzen saiatuko gara honako gaiak azalduz: jatorria, burutzen duten jarduera, izaera juridikoa, Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin duten lotura, ESS-ko beste elkarteekin eta administrazioarekin duten harremana eta azkenik norantza joango den etorkizuna.

### **NOIZ ETA NOLA SORTU DIRA**

Emaús Gizarte Fundazioan Alberto Gastonekin, ETIK (gizarte eraldaketarako hezkuntza) saileko arduradunarekin kontaktatu genuen. Emaús, nazioarteko mugimendu bat izan zen, 1947. urtean Parisen, gerra ostean sortu zena, Abbé Pierre-ren eskutik. Mugimendu hau sortzearen arrazoia, garai horretan jendeak zuen bizimodu gogorra izan zen. Negu oso txar baten ondorioz frantziar asko hil ziren, horregatik fundatzaile izan zen Pierre-k frantziarren solidaritateagatik apustu egin zuen, biztanleriari etxerik ez zeukaten guztiei laguntzeko eskatuz. Hortik gutxira, 1949. urtean George Legay izeneko gizonari laguntza eskatu zion etxerik ez zuten familientzat txoko txiki bat eraikitzeko. Hiriko jendearen erantzuna oso ona izan zen eta jende askok etxean behar ez zituzten gauzak, behar zituzten pertsoneri ematen hasi ziren. Horrela hasi zen Emaús mugimendua, azken batean soberan daukaten pertsonak, ezer ere ez daukaten pertsoneri laguntza ematen.

Hori Parisen gertatu zen, baina lurralde bakoitzean mugimendu honek bere forma hartu du eta era desberdinetan antolatzen joan da, baina beti ere, oinarri berdina mantenduz, ezer ez dutenei laguntza eskaintzen eta denetik dutenek dohaintzan gauzak ematen, horrekin errendimendu ekonomiko bat atera ahal izateko.

Euskal Herrira, Errenteriarra, 80. hamarkadan iritsi zen Emaús-en lehen esperientzia. Fundatzaileak frantziara bidaiatu zuen eta bertan ezagutu zuena hona ekarri nahi zuen.

Erreterian komunitatean bizitzeko toki bat eraiki zuen eta kartoiaren bilketarekin hasi ziren. Bilketa horrekin dirua ateratzen zuten, soldata batzuk ordaindu ahal izateko. Modu horretan hasi zen Euskal Herriaren Emaús-en mugimendua ezagutarazten eta oraindik metodo horrekin ere jarraitzen dute, beste hainbat jardueraz gain.

Ipar Euskal Herriaren kasuari lotuta, Euskal Monetaren sorrera desberdina izan zen eta alderatuz berriagoa da. Honi buruzko informazioa jakiteko Xebax Christirekin, Euskal Monetako Lehendakariarekin egoteko unea eduki dugu eta berak labor azaldu digu historia. Euskal Moneta bi militanten artean sortu zen, hauek bi gai buruan zituztelarik: ekologistak, hau da, ingurumenaren aldeko ideia zutenak eta euskararen aldekoak, bizitza publikoan euskararen garapena bultzatzea nahi zutenaren ideia. Askok bi ideiak zituzten buruan, beste batzuek bakarra. Dante-k, zuzendariak, bi gauzak zituen buruan eta Ipar Euskal Herrira ailegatzean Euskara ikasten hasi zen.

Idea horiekin hasi zen pixka bat proiektu honen sorkuntza, baina batez ere bildu ziren topakizun batean gertatu zen. 2011-2012 artean egin zen OMSeko Komertzio eta Merkataritzaren Erakundearen gailurrean lehen pausoa eman zen, militanteek tokiko moneta desberdinak ezagutu baitzituzten. Geroago, Frantziaren gailur batean deskubritu zuten bertan sortu zen lehen tokiko moneta, Abey izeneko.

Guzti horren ostean, Ipar Euskal Herriaren ere horrelako proiektu bat egin behar zela pentsatu zuten, horietako bat Dante izan zen. Dante, arestian esan bezala zuzendaria da, baina Ekonomia arloan kazetaria ere bada, beraz horrelako proiektuak ezagutzen zituen. Buruan zuten horrelako proiektua aurrera eramateko prozesua eta 2011ko irailean Alemaniara joatea pentsatu zuten, antzeko proiektu batzuk ezagutzera, adibidez Chiemgauer izeneko bisitatzera. Gertuago zuten beste moneta bat ere joan ziren ezagutzera, Toulousekoa alegia, Sol Viollet izeneko. Nagusiki bi toki hauek bisitatu ostean, urte beteko lana egin zuten eta buruan zeukaten proiektua aurkezteko gonbidatuak izan ziren. Aurkezpen horretara elkarrekin desberdinak ere bertaratu ziren proiektu honen berri jakinaren gainean egon nahi zutelako.

2012ko udaran idatzi zen Euskoaren araua izango zena eta 2012ko Irailean hain zuzen, biltzar berezi bat antolatu zen proiektuan jende gehiagok parte hartzeko. Bertan erabaki zen 2013aren hasieran Euskoa martxan egon beharko zela eta beste hilabete guzti horiek lanean pasa zuten, paperean idatzita zegoena egia bilakatzeko unea zen. Hala izan zen, 2013ko urtarrilaren 31an zirkulazioan zegoen Euskoa.

Azkenik, Iruñako Geltoki proiektuaren kasuan, Katrin Ginea koordinatzailearekin egotea lortu dugu eta berak azaldu dizkigu proiektu berri eta inspiratzaile honen nondik norakoak. Iruñako Geltokiaren kasua Euskal Moneta baino berriagoa da, izan ere proiektua orain dela zortzi urte hasi zen. Iruñako geltokiak jada garai hartarako 3 urte bete zituen itxita eta orduan hasi ziren REAS Nafarroak eta PSN-k bultzaturiko proiektu honen lehen pausoekin. Proiektu hau udalera eraman zuten espazioa berrerauzteko eta ekonomia solidarioa bertan bultzatu ahal izateko. Plenoan onartu egin zen baina urte horretan UPN zegoenez gobernatzen, prozesua ez zen aurrera eraman. Urte batzuk pasata, aurreko legegaldian aldaketa bat egonenez, berriro egin zuten apustu REAS

Nafarroak eta beste elkarte batzuek, udaletxearekin berriro ere harremanetan jarri. Proiektua onartu zen eta udalak obra egin zuen, 2017ko gabonetan konkurtso publikora aterata. Konkurtsora aterata, REAS Nafarroak, Traperos de Emaús-ek, EHNE sindikatuak, CPAEN-ek eta Alimentos artesanos-ek sozio moduan sortu zuten Geltoki Iruña elkarte, beste kolaboratzaile batzuekin. Une horretan martxan jarri zuten jendea aurkitzeko prozesua, koordinatzaileak alegia, eta bertan sartu zen Katrin. Geroago beste prozesu bat egin zen beste lan talde bat osatzeko eta orain momentuan 6 langile daude.

## **BURUTZEN DUTEN JARDUERA**

Aurkezpena atzean utziz eta bakoitzaren nondik norakoak zeintzuk diren jakinik, burutzen duten jardueran enfokatuko gara.

Emaús-en kasuan, burutzen dituzten jarduerak tximeleta moduko batean irudikatzen dituzte. Alde batetik, hego indartsuena daukate, inklusio sozialarekin identifikatzen dena eta bestetik, Ekonomia Solidarioa-ren hegoa. Inklusio sozialaren zatia da gutxien ezagutzen dena. Bertatik sortu dute esku hartze modelo bat, non gizarte inklusioan dauden pertsonak, erresidentzia eraikuntzak, dia zentroak eta lanerako orientazio saioak burutzeko laguntzen dute. Pertsona gehienak Ekonomia Solidarioarengatik ezagutzen dute Emaús, bertan burutzen diren jarduerak hondakinarekin, ondasunen berrerabilerarekin eta birziklatzeko ondasunekin zerikusia duelako eta bisibleagoa delako. Bigarren eskuko denda bat ere badute eta jarduera hori, gizarteratzeko eta laneratzeko enprekin burutzen dute, hauek Ekonomia Solidarioko agente ekonomikoak baitira, hauen helburua gizarte inklusioan dauden pertsonen laguntza ematea delako.

Tximeletaren filosofiarekin amaitzeko, erdialdean enborra dago, bertan zerbitzu zentralak kokatzen dira eta hor kokatuko litzateke Etik, Emaús-en bihotza delako. Sail horretatik saiitzen dira salatzen bidegabekeriaz eginiko jarduerak edo portaerak, hau da, sozietateari begira gertatzen diren gauza txarrak eta zatarrak salatzen dituzte.

Euskal monetaren kasuan, berak burutzen duen jarduera desberdina da, berak euskoa kudeatzea du. Honez gain proiektuak ere garatzen dituzte. Euskoa edukitzeko, enpresa bat izanik edo indibidualki pertsona batek bete behar dituen pausuak betetzen diren kontrolatzen dute. Izan ere, enpresa bat izan edo pertsona fisiko baten moduan euskal monetaren parte izateak gauzak aldatzen ditu. Pertsona indibidualaren kasuan, baldintza bakarra elkartearen kide bilakatzea izango da. Enpresa baten edo komertzio baten kasuan aldiz, egoitza soziala Ipar Euskal Herrian eduki beharko du. Hasiera batean ez zegoen arau hau, baina sortu eta bi urteren buruan ohartu ziren arau hau ezartzea ezinbestekoa zela, nolabait enpresak lurraldeko ekonomiarekin lotura bat edukitzeko.

Euskoak berak akta bat dauka non Euskal Monetak dituen printzipioak azaltzen diren eta zeren alde egiten duten azaltzen den: tokiko ekonomiaren alde, laborantza herrikoien alde, trantsizio ekologikoaren alde, euskararen alde, finantza alorreko espekulazioa txikitzearen alde, hautatzen dugun elkarte bat diruarekin laguntzearen alde eta hurbileko merkataritza defendatzeko. Akta horretan baztertzen dira, banaketa handia, laborantza industrial eta kalte ekologiko handiak dituzten enpresak.

Euskoa, Ipar Euskal Herrian erabilia da eta hori da bere gunea. Egia da garapena desberdina dela toki desberdinetan baina bertako toki denetan dago presente Euskoa eta baloreak ere berdinak dira toki guztietan. Lurralde guztietan aldaguneak daude, komertzio desberdinen eskutik, bertan kanbioa egiten dute eta baita elkartearen kidetza. Gaur egun badira 28 gune eurotik euskora aldaketa egiteko.

Geltokiaren kasuan, baliteke bere jarduera zein den ikusita Emaúsekin lotura gehiago edukitzea, Traperos de Emaús ere honen parte delako. Geltokiaren helburua, ekonomia solidarioa, elikadura burujabetza eta kultura alternatiboa biztanleriari ezagutaraztea da. Arlo desberdinen bidez egiten da, kasu honetan hiru izango direlarik: denda, taberna eta kultur espazioa. Kultur espazioa da beraientzat garrantzitsuena baina etekin ekonomikoa dendatik eta tabernatik ateratzen dute. Dendan eta tabernan lan egiteko erabiltzen dituzten produktuak bertakoak, ekologikoak eta ahal diren heinean familia edo ekoizle txikietatik datozen produktuak izango dira. Dendara jota, badute bigarren eskukoa den gune bat, hor egiten du ekarpena Traperos de Emaús-ek. Dendan, bertako artisauek egindako produktuak ere saltzen dituzte.

Azkenik, kultur jarduera desberdinak ematen dituzte urte osoan zehar, beraientzat garrantzitsuena delako. Erakusketak, hitzaldiak, elikaduraren burujabetzarekin zerikusia duten hitzaldiak, elikadura tailerrak, degustazioak, demostrazioak, liburu aurkezpenak eta beste hainbat gauza egiten dituzte eta jendea beti oso pozik gelditzen da honekin. Baina honetarako ere dirua behar da eta etekin hori, tabernatik eta dendatik ateratzen dute.

## **EGITURA JURIDIKOA**

Hiru elkarte hauei dagokien egitura juridikoa desberdina da, kokatuta dauden tokiagatik edota burutzen duten jardueragatik. Bakoitzak bere filosofiarekin eta jarduerarekin hobe lotzen zen egitura aukeratu zuen.

Emaús-en kasuan, bera fundazio bat da baina gizarteratze eta laneratze enpresen sustatzailea izanik, enpresa horiek sozietate mugatuak dira, alde produktiboagoa dutelako. Egitura juridiko hori aukeratzearen arrazoia, batik-bat legeak hori onartzen duelako izan zen eta baita finantzaziora jo behar bafute edo beraiek jarraitzen duten filosofiari jarraiki ere, bat etortzen zen izaera zen. Egia da kooperatiba ere izan zitekeela, baina arazoa da, kooperatiba izateak ez duela uzten gizarteratzeko enpresa bezala jarduten. Sozietate mugatua izateak, langileentzat gehienez 3 urteko egon beharra eskatzen du eta kooperatibaren kasuan ez. Gainera, kooperatiba batek beste bisio bat du, eta Emaús-en helburua, lanaren bidez sozietatean inpaktu handiagoa edukitzea da.

Elkarteari dagokionez, Irabazi asmorik gabekoa da, ez daukate irabazirik baina horrek ez du esan nahi salmentak behar ez dituztenik enpresa ondo joateko. Salmentak ez badaude jarduerak ezingo liriateke aurrera eraman, antzerakoa gertatzen da Geltokiren kasuan.

Euskal Monetaren kasuan ere, irabazi asmorik gabeko elkarteak da eta gobernantza aldetik demokratikoa eta parte hartzailea. Elkarte bezala izendatu zen Frantzian

1901.eko legea dagoelako horrelako egitura juridikoa dutenei arautzeko. Egitura juridiko hori aukeratu zen, alde batetik, jendeak hori ezagutzen zuelako eta Frantzian asko erabiltzen delako horrelako proiektuentzat eta bestetik, beraien baloreekin gehien lotzen zelako. Nahiz eta egitura juridikoa aldatzeko asmoa ez izan, buruan nonbait badaukate alternatiba bat, kooperatiba mota bat dena. Kooperatiba hori, Société coopérative d'intérêt collectif (Scic) deitzen da, interes kolektiboa duen kooperatiba da eta Espainiaren kasuan ez da horrelako legediarik existitzen.

Geltokiaren izaera juridikoa pixka bat aldatzen da. Besteak bezala irabazi asmorik gabeko proiektua da baina bertako langileak kooperatibistak dira, hau da, mikro kooperatiba bat da, bertako langileekin sortua. Espazioa udalarena da, berak egin zuelako obra guztia. Obra egin ostean, arestian azaldu dugun moduan, konkurtso publikora aterata, 5 sozio printzipalen artean sortu zen Geltoki Iruña elkarte baina hauek ez zuten nahi elkarte honen kudeatzaileak izatea, horregatik koordinatzaileen bila hasi ziren eta gaur egun mikro kooperatiba hau arduratzen da honen kudeaketaz.

### **EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREKIN DUTEN LOTURA ETA ULERTZEKO MODUA**

Bakoitzaren historia, jarduera eta egitura juridikoaren zergatiak azalduta, gure gaira ekartzeko, bakoitzak ekonomia sozial eta solidarioarekin duen harremana zein den eta bere parte zergatik sentitzen den azaltzen saiatuko gara. Bakoitzak helburu desberdinak dituen arren beti edukiko du oinarrian berdintsua den zerbait.

Hasteko, Emaús-en oso lotuta sentitzen dira Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin, alde batetik, egiten duten praktika horrekin bat datorrelako, lanean aipatutako gutunean ageri diren printzipioak betetzen dituztelako eta egiten dutenaren parte direlako. Egia esanda printzipio horiek betetzea oso erraza dela diote, baina Emaús-en parte diren guztiek ondo betetzen dituzte, barrutik ateratzen baitzaie. Burutzen duten jarduerak ingurunea zaintzea eskatzen du eta ingurumenarekiko beste batzuk kontzientziazte ere. Gainera, urtero esfortzu bat egin behar dute kontuak ondo ateratzeko eta gizarteari erakutsi nahi diote, ez dela berdina Walla pop-en erostea edo Emaús-en erostea, bakoitzak duen filosofia desberdina delako eta egiten den esfortzua ere guztiz desberdina delako.

Beste aldetik, lehiaren eta kolaborazioaren arteko desadostasuna edo arazoa dago. Izan ere, ekonomia solidarioan lanean dabiltzan enpresa, erakunde edo elkarteak denon ongizaterako, beraien artean kolaboratzea onuragarria edukitzea egokia izango litzateke, baina praktikan kasu askotan lehian sartzen dira eta ez da onura hori ematen.

Emaús-en aldetik adibidez, sarean proiektu asko garatzen saiatzen dira, lan indibiduala taldeko lanarengatik ordezkatzeko alegia. Beraien aktibitatearen izaera Ekonomia Solidarioa bezala definitzen dute, arazoak dituzten pertsonentzat enplegua sortzen saiatuz eta sortzen dituzten arazoak beraiekin batera gaintuz. Argi dago Ekonomia Solidarioaren parte sentitzen direla, baina ekonomia solidarioa nola ulertzen duten beste gauza bat da. Lanean zehar teoria asko ikusi ditugu kontzeptu honen inguruan baina praktikan jartzean baliteke zerbait desberdina gertatzea.



Emaús-eko pertsona baten ikuspuntutik ulertuta, lana edo enplegua Ekonomia Solidarioaren parte ez litzatekela sartu behar esaten da. “Lanaren bitartez pertsonak bergizarteratzeko eredua” esaldiak pertsonak lanarekin lotzen dutelako eta ez litzateke horrela izan beharko beti. Gaur egun denok lanera lotuta gaudela eta bizitza bizi beharrean askotan bizitza kolokan jartzen digu edo beste gauza batzuetarako denbora kentzen digu. Beraz, Ekonomia Solidarioak erabakien erdian pertsonak jartzen ditu, eremu guztietan, erabakien erdian pertsonak jartzea izugarrizko inplikazioa ekartzen duelako, lanean ditugun soldatetatik hasita, lan egiten dugun tokian eskaini dezakegun jakintzarekin burutu daitezkeen gauzeekin bukatuz. Horrela enpresak berak hasiera batetik pertsonak kontutan hartzen ditu eta ez kapitala.

Pertsonaz gain, bere aktibitate guztiek ingurumenaren ongizatean inpaktua daukate, azkenean, gu, pertsonok, inguru horretan garatzen gaudelako eta horren arabera jardungo garelako. Horregatik daukate Etik departamentua, bertan pertsonak erdialdean jartzen dituzte, denoi laguntza emateko, bakoitzak bere burua ere zaintzen ikasteko eta hortik bidea zabalduz proiektu berriei ongi etorria emateko, sozietate inklusiboak, bidezko merkataritza eta beste hainbat gauza bultzatuz.

Tokiko enpresekin eta bertako ekonomia sustatzearekin, Euskal Monetaren adibidea aurrerago ikusiko dugu, baina Emaús-ek ere hori bultzatzen du. Adibidez, Emaús-ek bere ohiko tokia ez den beste herri edo lurralde batean proiektu batekin hasi nahi badu, beti saiatzen da tokian bertako erakunderen batekin kontaktatzen, berak duen ezagutza toki berri horrekiko % handiagoa duelako eta efizienteagoa izango delako eta berari ere laguntza ematen diolako.

Euskal Monetaren kasuan, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren parte sentitzen dira, tokiko ekonomia garatzeko tresna bat da eta biziki lotuta dago jendearen parte hartzearekin eta jendearen artean harremanak sortzearekin. Baita guk pertsona moduan kontsumitzerako orduan ditugun praktikak aldatzeko eta bertako merkatuari eta ekoizleei indar handiagoa emateko ere. Enpresei dagokienez ere, zerbitzuak eskaintzeko momentuan eta ekoizteko momentuan, bertakoekin lana egiteko eskatzen zaie, kanpoko enpresa eta batez ere enpresa handiekin lan egitea ekidituz. Nahiz eta ESS-aren parte sentitu, Xebax-ek esaten zuen ez dutela asko gogoetatzen ESS-a nola ulertzen duten. Praktikan burutzen dutenarekin identifikatzen dira eta dituzten baloreekin. Oso garrantzitsua da teoria hori praktikara eramatea eta horretan sinestea beraiek hori oso ondo betetzen dutela dio.

Frantzian Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko desberdinketa egiten dela dio, Ekonomia Soziala kontzeptua gehienbat enpresa handiagoei edo aseguru eta bankuko egitura handiek erabiltzen dute. Euskoaren parte direnak ez dira hor sartzen, proiektu honekin, elkartasuna, jendearen arteko harremana eta bereziki elkarte mugimendua sostengatzeko jarduerak burutzen dituzte, eta hori solidarioarekin lotzen dute. Euskoa erabiliz, hautatzen dugun elkarte bat sostengatzen dugulako, hauei diru pixka bat emanez.

Geltokiaren kasuan ere, ekonomia sozial eta solidarioaren parte sentitzen dira. Azkenean, proiektua bera REASEk sortutakoa zen eta bera jada Ekonomia Solidarioa bultzatzen duena da. Hor dauden beste elkarteek ekonomia solidarioa bultzatzen dute eta dirua bertan gelditzeko ere laguntza ematen dute. Gehienbat hiru elkarte daude elikadura lantzen dutenak eta Traperos de Emaús da “por excelencia” ekonomia solidarioa bultzatzen duena da.

Proiektuaren filosofia eta misioa eta bisioa elkartetik dator markatuta, baina egia da lan taldean denok edo gehienok zetoztela kolektibo desberdinetan lan egitetik. Hain barneratua ez zeukan jendeak ez du sinistu proiektuan eta atera da eta jarraitzen dugunok gara sinisten dugunak. Beste batzuetan, sinisten zutenek ere, utzi egin dute, baina beste egoera batzuegatik.

Gainera ekonomia sozial eta solidarioa ulertzeko modua ere zein den argi dauka Katrinek, ekonomia soziala gauza bat dela eta solidarioa beste bat esaten du. Ekonomia sozialaren barruan ez dago ekitate salariala adibidez, eta kooperatiba batzuetan hori ez da ematen baina ekonomia sozialaren barruan daude. Esparru hori oso handia da eta beraientzat baliteke nahikoa izatea beraien irabazien % diru kantitate bat arlo sozialera bideratzea baina gero praktikan ere ikusten da zein den benetan ekonomia sozial eta solidarioaren parte.

Geltokiaren parte direnentzat oso garrantzitsua da pertsona guztiek berdina balio dutela sentiaraztea eta beraien hori sinistaraztea, praktikan hori ikusiz ez bakarrik esanez erakutsiz. Bertan denok berdina irabazten dute, zerbitzariak, garbitzaileak edo koordinatzaileak. Denok dituzte eskubide eta betebeharrak berdinak eta hori beraientzat oso garrantzitsua da eta denontzat izan beharko litzateke garrantzitsua baina oraindik asko dago egiteko. Ingurumena mantentzea eta errespetatzea ere oso garrantzitsua da, horregatik beti saiatzen dira bertako produktuekin, produktu ekologikoekin eta abar lan egiten.

### **ESS-aren PARTE DIREN BESTE ELKARTEEKIN HARREMANAK**

ESS-an parte diren elkarte asko daude eta Albertok esaten zuen moduan garrantzitsua da beraien artean laguntzea eta indarrak batzea. Elkarte bakoitzak bere harremanak izango ditu gustoko edo interesatzen zaizkion beste erakunde, elkarte edo enpresekin. Honen inguruan gehiago jakiteko, bakoitzaren egoera azalduko dugu.

Arestian Emaús-en kasuan aipatu dugun bezala, ekonomia solidarioan lanean dabiltzan enpresa, erakunde, elkarte eta beste guztien arteko harreman onak edukitzea egokia izango litzateke baina batzuetan ez da ematen. Alberto-k esaten du, batzuek asko hitz egiten dutela eta gero praktikan jartzeko garaian ez dutela esandako ezer egiten, edo bere jardueretan ez dela filosofia hori barneratzen. Emaús-en kasuan, adibide bezala jartzeko, gaur egun erlazioa daukate SOS Racismorekin, baita Mugen Gaietik elkarrearekin, Gu haziak gara, Caritas eta beste hainbesterekin. Gainera, garatzen dituzten proiektu guztietan saiatzen dira iparra eta hegoa daukaten bisio bat ezartzen, beraientzat global/lokal ikuspuntua edukitzea oso garrantzitsua baita. Urrutira joanda, Costa Rican Cepal Forja izeneko erakunde batekin ere erlazio estu bat daukate, bertako

hezkuntzaren erreferentziatzat hartzen dute. Gertuagora etorrira, Gureak, Fagor Ederlan, Irizar eta beste zenbait enpresak ere Emaús-ekin kontaktuan jarri dira, elkarrekin proiektuen bate aurrera eraman ahal izateko. Horrelako enpresekin proiektuak egiteko orduan beste erlazio mota bat mantentzen dutela baieztatzen zidan Albertok, ez direlako normalean mantentzen dituzten erlazioen berdinak, honek enpresa handiagoak baitira.

Frantzian Euskal Monetaz gain badaude EES-aren barnean dauden beste erakunde batzuk. Beraiek harremana daukate batzuekin, baina burutzen duten jarduera printzipala moneta kudeatzea denez, Xebax-ek garrantzia handiagoa ematen dio bankuekin duten harremanari, hau da, finantza entitateei. Izan ere, daukaten baloreak jarraiki, ezin izango dute lana egin ohiko finantza entitateekin. Horregatik bi banku desberdinekin egiten dute lana, frantziako bi banku etikoenak direlarik: bata, Credit Cooperative, ekonomia sozialeko egitura handi bat da, eta bestea Lanef, hau orain bankuan bilakatzen ari da eta Euskal Herrian ezaguna den Fiare-ren antzerakoa da. Azken hau, etikoena den bankua da baina hazten dagoenez, oraindik ez ditu eskaintzen banku batek eskaini ditzaken zerbitzu guztiak.

Iruñara jota, Geltokik, harreman oso ona dauka sektoreko beste erakundeekin, batzuekin beste batzuekin baino hobea beti ere. Gainera Iruñan ekonomia solidarioaren barne, sozialarekin gutxiago, dauden elkarte, talde edo enpresa guztiak badakite Geltoki existitzen dela, beraiek informatu dietelako edo bertara etorri direlako. Emaús-ek asko lagundu die, nahiz eta sozio printzipal bat izan, bertan daukaten altzari eta material asko, beraiek emandakoak dira. Kultura ataletik begiratuta ere, elkarte eta asoziazio askok aukeratzten dute Geltoki biltzeko gune moduan, bai erakusketa bat edo hitzaldi bat emateko ere.

Horretaz gain, Geltokik harreman oso estua dauka ekoizle txikiekin, beraien dendan saltzen dituzten produktuak bertakoak eta ekologikoak direlako eta baita tabernarako erabiltzen dituzten produktuak ere. Batzuetan horrelako ekoizleekin zaila dela lan egitea zion Katrinek, momentuan zerbait beharrezkoa bada zailagoa delako hori eskuratzea, baina orokorrean oso pozik daude beraiekin daukaten erlazioarekin eta egiten duten lanarekin.

## **ADMINISTRAZIOAREKIN DUTEN HARREMANA**

Argi gelditu da, sektoreko hainbat erakunderekin ere arazoak sortu daitezkeela, baina hiru hauen esperientzia ikusirik, guztiz pozik daude orain arte sortu dituzten harremanekin. Beste harreman mota bat da administrazioarekin dutena, ikusiko dugun moduan bakoitzaren ikuspegia ikusita zertxobait alda daiteke baina denak irabazi asmorik gabeko elkarteak izanik, argi daukate administrazioen diru laguntzarik gabe, ezin izango direla bizi.

Horregatik, lehenik eta behin Emaús-en kasuan zentratuz, administrazioarekin daukaten erlazioa handia eta ezinbestekoa da. Alde batetik, programa sozial guztiak zerbitzu sozialen departamentu desberdinetatik finantzatuak izaten dira, Eusko Jaurlaritzatik, diputaziotik edo udaletxetik. Beraz, finantzazioaren %100a bertatik lortzen dute. Sail

honetan, proiektuak lortzeko egiten dituzten deialdietara izena ematen dute eta gero proiektu onenari ematen diote eskainitako laguntza hori. Nahiz eta beraiek nahi duten proiektua egiteko aukera eta finantzazioa eman, muga batzuk jartzen dituzte eta muga horietara lotu behar dira. Albertok esaten zuen bezala, ez dira nazioarteko amnisiata bat bezalakoa edo Médicos sin Fronteras bezalakoa, hauek fondo pribatuekin lan egiten dutelako eta ez dute inongo mugarik.

Beste aldetik, enpresaren zatiari dagokion finantzaketaren zati bat Eusko Jaurlaritzan gizarteratze eta laneratzean dauden langileetatik jasotzen dugu. Hemen salmentak beharrezkoak izango dira mantentzeko. Finantzaketako ehunekoak aldatzen joango dira enpresan, normalean publikoa %70-60 inguruan ibiliko da eta pribatua %30-40 inguruan. Egunen batean laguntzak kenduko baliote ezin izango lukete aurrera jarraitu, laguntza horiekin baitaude bizirik. Horregatik beharrezkoa da gaur egun eta etorkizunera begira ere administrazioarekin erlazioan jarraitzea eta erlazioak indartzea, alde batetik, beraiek egiten duten lana ez litzatekelako posible izango eta bestetik, hauek dutelako indarra eta beraiek laguntzen diotelako finantzazioarekin. Hori gabe Emaús-ek ezin izango luke bere lana ahalik eta hoberen egin eta gizarteari ezin izango lioke ezer positiboa edo gainbalio hori eskaini.

Euskal Monetaren kasuan, ere antzeko da erlazioa. Udalak proiektua ere asko bultzatzen duelako eta 2016tik gaur arte Udal asko hasi dira Euskoan sartzen. Adibidez, Baionako udalaren kasuan, gastuetarako Euskoa erabiltzen du. Horregatik gainera, orain dela urte batzuk Baionako udala auzitegietan egon zen eta honek batera Euskal Moneta. Azkenean dena argitu zen eta irtenbide bat proposatu zuten, hau da, Udalak gastuetarako Euskoa erabil zezakela. Bestela ez dute inoiz beldurrik izan Administrazioari, beraiek harremana ona izan da betidanik, beti ere harremana ona bada eta elkarteari Administrazioak ematen dion laguntzarekin bere kabuz kudeatu badezake bere burua. Jaso duten azken laguntza adibidez, Euskararen hirigune kargutik dator, honek hiru urtetan diru laguntza bat emango dio Euskal Monetari proiektua finantzatu dezan. Beste elkarte batzuek alegia, ez zuten edozein laguntza ere onartuko, batzuetan beldur direlako.

Azkenik, Geltokian Katrinek komentatu zuen bezala, beraien eta Administrazioaren arteko harremana nahiko ona dela zion. Proiektu hori administratibotik datorrelako eta aurreko nafarroako gobernuarekin adibidez, diru laguntzak eskatzean eman egin dizkiete. Egia da, batzuetan instituzioekin harremanak oso motelak direla baina orain arte udalarekin edukitakoa ere ona da. Azken hilabetetan aldaketak egon direnez, ez dakite nolako harremana edukiko duten hemendik aurrera, baina orain arte edukitakoa e-maila bidez ona izan da, beraz horrela izango dela pentsatzen dute.

Geltoki proiektua bultzatu duena ez da bakarrik merkataritza arloa izan, ingurugiro arloa, berdintasun arloa eta partaidetza arloak ere parte hartu dute, orduan harreman ona edukitzeko ere errazagoa izan daiteke, arlo desberdinetako indarrak ere beraiekin dutelako. Katrinek esaten duen moduan, etorkizunera begira administrazioekin duten harremana handituko lituzkete, beraien laguntzarik gabe proiektua ezin izango

litzatekelako aurrera eraman, batez ere kulturaren arloa, taberna eta dendaren etekinekin horrek aurrera egin dezakelako baina kulturak ez.

### **ELKARTEEN ETORKIZUNA ETA ESS-aren ETORKIZUNA EUSKAL HERRI MAILAN**

Guzti honekin bukatuta eta lan honen helburu nagusietako bat oinarrian hartuz, ekonomia sozial eta solidarioaren etorkizuna nola ikusten duten jakitea esparru desberdinetan eta gune geografiko ezberdinetan garrantzitsua da. Kasu honetan, Euskal Herrian edo estatu mailan gehiago zentratuz.

Alde batetik, hiru elkarteetako etorkizuna begiratzuz, lan handia dago egiteko, beti bezala. Albertok esaten zuen bezala, jendea kontzientziatzen ari da eta hori beraientzat ere lagungarria da beraien proiektuak aurrera ateratzeko, ez pertsona indibidualak bakarrik, beste elkarte asko eta baita enpresak ere horrekin kontzientziatzea garrantzitsua da. Xebax-en aldetik adibidez, Euskal Monetaren etorkizuna ere positiboki baloratzen du, nahiz eta oraindik ere lan asko egin daitekeen. Azkenik, Katrin arduratuago dago, izan ere arestian aipatutako laguntzak oso garrantzitsuak dira beraientzat eta Kultur arloaren etorkizunarekiko kezkatuta daude, baina beti positiboki begiratzen dute eta oraindik esperantza guztiak dituzte hurrengo urteko laguntza emango dielakoan.

Beste aldetik, Alberto, Xebax eta Katrin egia esanda ados daude etorkizunera begira gauzak aldatuko direlakoan. Hau da, Ekonomia solidarioaren indarra, batez ere, indartzen joango dela, gaur egun pertsonak kontzientziatuagoak gaudelako. Lan handia daukagula egiteko ere diote, baina poliki-poliki lortuko dela ere pentsatzen dute. Ekonomia solidarioa azkenean, ikusi dugun moduan guztiontzako onurak ekartzen dituen ekonomia da, pertsonok erdian jarriz eta ingurunea zainduz mundu hobetoago bat lortzeko. Ekonomia alternatibo honen inguruan eta barnean geroz eta jende gehiago dago eta ez Euskal Herri mailan bakarrik, Katrin-ek baieztatu zuen bezala, berak Madrilera eginiko bisitetan ere garapen hori ikusi du bertan, Ekonomia solidarioaren etorkizuna positiboki baloratuz. Gainera, garrantzitsua da Albertok esan zuenarekin oroitzera eta ez inoiz esaldi hau ahaztea: Galeanok esaten zuen bezala, pertsona txikiak, gauza txikiak egiten aldaketa handiak egin ditzake.

### 6.3. Ondorioak

Aztertu behar genituen hiru lurraldeen ostean, bakoitzetik elkarte bat aukeratzea tokatzen zitzaigun. Horiek Emaús, Euskal Moneta eta Geltoki Iruña izan dira lanean zehar ikusi dugun bezala.

Hiru elkarteak guztiz desberdinak dira baina badute zerbait berdina oinarrian: gizarteari gauza onak eginez balio positibo bat ematea. Bakoitzak bere jarduerak modu batera edo bestera eginez lortuko du onura hori gizartean islatzen.

Emaús-ek, burutzen duten jarduerak tximeleta batean irudikatzen dute, alde batetik, hego batean, inklusio soziala egongo delarik eta bestean, Ekonomia Solidarioa. Inklusio sozialean lan egiteko, ingurune desberdinak dituzte, Ekonomia solidarioan aldiz, gehienbat ezagutzen dena, ondasunen berrerabilerarekin zerikusia daukaten jarduerak burutzen dituzte, Traperos de Emaús bertan sarturik. Bukatzeko, tximeletaren erdialdean dagoen enborrean, Emaús-en bihotza izango dena, bertan zerbitzu zentralak kokatzen dira, gizarte eraldaketarako hezkuntza (ETIK) adibidez.

Emaús-ekin lotu genezake Iruñako Geltoki proiektua, izan ere, berak duen bost sozioetatik bat Traperos de Emaús da. Laguntza handia eskaini die bertakoei, eta lehengo geltoki zaharra orain dagoen itxurara transformatzeko altzari asko eman dizkiete dohainik. Hemen ikusi daiteke, daukaten erlazioa, nahiz eta sozio izan batak besteari laguntzen dio, ekonomia solidarioaren parte direlako. Baina esan behar da batzuetan, nahiz eta ekonomia solidarioaren parte izan harremana ez dela beti ona. Askok pentsatzen dute jarduera batzuk bakarrik eginez ekonomia solidarioaren parte direla, baina ez da horrela. Balore batzuk barruan eduki behar dituzu eta lana eginez horiek loratzen joango dira, azkenik benetan bere parte diren edo ez ikusiz.

Euskal Monetaren kasua desberdina da, baina badauka Geltokirekin antzekotasun txiki bat. Euskal Monetak, arestian azaldu den moduan Euskoa kudeatzen du. Euskoa, bertako merkaturia, euskara, ingurunea eta beste zenbait gauza bultzatzen duen moneta da. Beraz, bertan sartuta dauden enpresek eta dende filosofian honekin bat egin behar dute. Berdina gertatzen da Geltokin, denda eta taberna daukate, eta bertako produktuak ekologikoak eta bertakoak izan behar dute, ingurumena zaintzen duten, enpresa handiak ez diren eta beste hainbat baldintza betetzen dituzten familiei edo tokiko enpresa txikiei erosiak izan behar dute.

Egitura juridikoari dagokionez, desberdintasunak ere ageri izan dira. Alde batetik, Emaús-en kasuan, inklusio sozialaren zatia enpresekin mugitzen denez, sozietate mugatuak dira. Solidarioaren kasuan egitura elkarte moduan asoziatuta dago. Bestetik, Euskal Moneta irabazi asmorik gabekoa elkarte bat da Emaús-en bezala baina gobernantza aldetik demokratikoa eta parte hartzailea, 1901.eko legeak araututa. Azkenik, Iruñako Geltokiaren kasuan nahiz eta bost sozio printzipal egon, mikro kooperatiba bategatik sortuta dago, gaur egun 6 pertsona dihardute bertan lanean eta beraien arduratzen dira geltokiaren kudeaketaz.

Ekonomia sozial eta solidarioaren kontzeptua batzuek beste batzuek baino barneratuago daukate. Adibidez, Emaús-ekoak oso barnean sentitzen dira, beraien parte delako eta hori bultzatzen dutelako beraien egunerokoan. Euskal Monetaren kasuan aldiz, Xebax-ek argi utzi zuen beraiek ez daukatela solidarioaren definizioa sarturik. Beraiek daukaten filosofia eta bisioa oso barneratuta daukate baina ez dute inoiz pentsatu solidarioaren definizioan. Beste alde batetik, Geltokiren kasuan ere, Emaús-en bezala, ekonomia solidarioaren alde egiten dute lan egunerokoan eta solidario hitzak Ekonomia Sozialari izugarrizko indarra ematen diola diote, esanahia guztiz desberdina bilakatzen dela. Izan ere, ekonomia soziala askoz ere zabalagoa da eta enpresa askok erabiltzen duten hitza izan daiteke, baina enpresa horiek egiten dutena ez da ezer ere gerturatzen Emaús-ek edo Geltokik bultzatzen eta egiten dituen ekintzetara.

Amaierara ailegatzeko badago hiru elkarte hauek harremanean jartzen duen beste kontzeptu bat, administrazioa. Hirurek diote administrazioarekin harremana edukitzea ezinbestekoa dela eta geroz eta harreman hobea edukitzea onuragarria dela guztiontzat. Batzuk beldur gehiagorekin ibiltzen dira beste batzuk baino, konfiantza faltagatik alegia. Baina argi dago, gaur egun horrelako proiektu bat aurrera eramateko, Emaús bere enpresarik gabe, Euskal Moneta bere barruan dauden enpresa, elkarte eta pertsona indibidual gabe eta Geltoki bere denda eta tabernarik gabe, ez zirela bizirik egongo administrazioak diru laguntzarik eman ez baliote.

Hori dela eta etorkizunera positiboki begiratzen diote, dena espero duten moduan joaten bada. Kontziente dira ere horrelako kasuetan kanpoko faktore batzuek ere eragina dutela erabakietan. Emaúsen kasuan, ikuspegi ona dute eta geroz eta indar handiagoa hartzen joango dela uste dute. Euskal Monetaren kasuan ere berdina diote, baina beti ere esfortzu gehiago eginez eta jendea erakarrit. Geltokiren kasuan aldiz, beldur gehiagorekin daudela baieztatu dute, kultur arloarendako laguntzak edukitzea ezinbestekoa delako. Udal berri honekin, orain arte harremana ona izan dute eta espero dute hurrengo urtean laguntza ere jasotzea, baina estu-estu dabilta.

Hiru perspektiba hauek ikusita, esan dezakegu azken urte hauetan Ekonomia Sozial eta Solidarioaren indarra Euskal Herrian handitzen joan dela eta oraindik ere handitzen joango dela. Lan asko dago egiteko, esaten zuten Albertok, Xebax-ek eta Katrin-ek baina denon artean lortuko dutela uste dute.





## IV. ZATIA: Ondorioak eta etorkizunera begira

### 7. Ondorioak eta etorkizunera begira.

#### 7.1. Ondorioak

Lanari amaiera emateko, aztertu ditugun autore eta gune geografiko bakoitzaren teoriak, historia, legediak, elkarreak eta beste zenbait gauza ikusi ostean, aztertu ditugun gauza guztien laburpen eta ondorio bat ateratzeko momentua da.

Ekonomia Soziala 1844. urtean sortu zela esaten da “Sociedad Equitativa de los Pioneros de Rochdalen” sorrerarekin batera. Ekonomia solidarioaren kontzeptua aldiz, gazteago dela esan dezakegu. Gaur egun baditugu kontzeptu hauek arautzen dituzten legeak herrialde desberdinetan, beharrezkoak baitira elkarreak eta enpresek beraien lana ondo egiteko. Guk, Euskal Herrian, Espainian araututa dagoen 5/2011ko martxoaren 29ko legea daukagu eta nire uste apalean lege honen sorrera estatu mailan aurrera pauso handi bat izan zen. Frantzia alegia, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren erreferentziaz hartzen duten Uztailaren 31ko 2014-856 legedia daukate. Badaude, kooperatibak, mutualitateak eta asoziazioak arautzen dituen beste lege batzuk baina gure lanerako garrantzitsuena izan dena aipatu dugun lehena izan da.

Ekonomia Solidarioari dagokionez faktore, tresna eta estrategia guztiak gune geografiko edo eskualde guztietan ez dira berdinak baina oinarrian antzekotasunak daukate. Adibidez, guztiek jartzen dute pertsona eta honen bizi kalitatea erdialdean, ingurumena eta pertsona guztiak berdintasun maila berean jarri. Horretaz gain, solidario hitza ere lan aukerarik ez duten pertsonentzat zuzenduta dago, hau da, gizartearengatik baztertua sentitu diren eta baztertu diren pertsona guztiei zuzenduta.

Izan ere, Ekonomia sozial eta solidarioa esaldi batean sartzeak, zerbait alda daitezkelaren esperantza ematen du. Batzuek ez daude ados horrekin, izan ere, utore askok, solidario hitza gehitzeak eraginik egiten ez diola diote. Jarri edo ez jarri esanahia berdin mantentzen dela. Kasu honetan, aipatu ditugun autore gehienek bai desberdintzen dute esanahia, batzuek besteak baino gehiago diferentziatu arren. Beste batzuek, ekonomia solidarioa ekonomia sozialaren adarretik hazten dela diote. Nahiz eta eztabaida hauek sortu, ezin dugu ahaztu ESSaren helburuetako bat pertsonoi eta hauen komunitateari laguntzea dela eta ekonomia ulertzeko beste metodo bat dela.

Legedia alde batera utzita, autore asko aipatu ditugu lanean zehar, ezagunenak diren Coraggio, Laville, Chaves, Monzon, Carlos Askunze, Enekoitz Etxezarreta eta beste hainbat. Zaila da jakitea guzti hauek oinarrian duten pentsaera, baina beraien lanak ikusita esan dezakegu, Coraggio-k eta Lavillek daukaten ikuspegia antzerakoak direla, edo Chaves eta Monzon ere elkarrekin joan daitezkeela. Sortutako beste harreman bat Celorio eta Laville-n artekoa izan daiteke. Izan ere, Celoriok, lanaren hasieran ageri den bezala, esaten du, berdintasuna, lana, ingurumena, kooperazioa, irabazi asmorik gabea eta ingurumenarekin konpromisoa printzipioak hartzen ditu oinarrian. Lanean aurrera eginda, Laville-k ere printzipio horiek aipatzen ditu esanez, printzipio horrek oinarrian

dituen ekonomia bat sortzeko garaia dela eta hori izango dela ekonomia sozial eta solidarioaren sorkuntza.

Nahiz eta printzipio horien loturan Laville eta Celorio aipatu, beste autoreek ere horietako printzipio batzuk hartzen dituzte. Beti lotzen dute, berdintasunarekin, lanarekin, irabazi asmorik gabeko ekonomiarekin edota ingurumenarekin. Baita, pertsonon gizarteratzearekin laguntzen duen ekonomiarekin.

Aipatutako autore guztiak gune geografiko desberdinean daudela badakigu, eta horregatik lanean askotan aipatu da ekonomia solidarioaren kontzeptua kokapenaren arabera zertxobait aldatuko dela. Lanean aurrera egin ahala, hau baieztatuko dugu eta egia da kokapenari dagokionez, legedia aldatzen dela, kultura aldatzen dela, politika aldatzen dela eta beste hainbat faktore sartzen dira honen esparruan. Baina ezin dugu ahaztu, pertsonak erdian jartzen dituen ekonomia bat dela eta hori aldatzeko ez dago munduan beste faktorerik.

Teoria guztiak hauek praktikan ikustean ohartu gara benetan guk ikusitako printzipio horiek jakitea ondo dagoela, eta horrek ondo menperatuta eduki behar direla, baina praktikan jartzeko momentuan egunero-egunero printzipio horiek gurekin egon behar dira, zerbait aldatzen bada, eta filosofia horrekin apurtzen badugu, ez du ezertarako balio. Gaur egun ekonomia sozial eta solidarioaren barruan jende asko dagoelako lanean, elkarte, asoziazio, arrantza kofradiak, kooperatibak eta beste elkarte mota asko. Gehienak beraien artean ezagutzen dira, Euskal Herriko kasuan adibidez, errazagoa da beraien artean ezagutzea, lanerako harreman estua dutelako batzuk. Hain harreman estua edukitzean, normala da elkarte guztiak ezagutzea, eta edozein akats eginda, beste guztiak ohartuko dira. Egindako elkarrizketa hauetan atera da, beraiak ezagutzen dutela erakunderen bat, jende aurrean oso ondo hitz egiten dutenak, jendea txundituta uzten dutenak baina gero praktikak ez dauka zerikusirik beraiak esandakoarekin, adibidez, langileak baldintza txarretan edukitzea.

Emaús, Euskal Moneta eta Geltoki elkarteek argi daukate, nahiz eta jarduera desberdina izan, izaera juridiko desberdina, zerbitzu desberdinak eskaini, gune geografiko desberdinean egon, lege desberdin batzuen menpe egon, ekonomia solidarioa aurrera atera ahal dela, guztion artean. Desberdintza horiek ez dute beraiengan ondorio larririk edukiko, denek laguntzen badiote eta baita beraien artean laguntza ematen badute.

Aurrera egin ahala, badaude ekonomia sozial eta solidario kontzeptua gehiago eta gutxiago ulertzen dutenak edo solidario kontzeptua gehitzeak ekonomia sozialari zerbait gehitzen diola pentsatzen dutenak. Autoreen artean adibidez, Lavillek (2013) esaten du, Ekonomia solidarioaren adiera, Ekonomia Sozialaren kontraesanak gainditzeko bide gisa proposatzen dela, hau da, <<eta Solidario>> abizen horrekin, Ekonomia Sozialak dituen interpretazio tradizionalak dituen zenbait muga gainditzea izango litzateke bere helburua. Badaude beste batzuk kontrakoa esaten dutenak, eta solidario abizen horrek ezer ez duela gehitzen esaten dutenak. Baina lan guztiaren ondoren ohartu gara, solidarioak benetan baduela bere egitekoa. Sortzen dituen erakunde desberdinekin, hala nola, laneratze enpresak, bidezko merkataritzakoak edo finantza etikoen

esparrukoekin egiten dituzten praktikak gizartearentzako guztiz onuragarriak dira, beti ekonomia sozialak egiten ez dituenak. Azken hauen lehen helburua gaur egungo merkatuetan lehiakor izatea delako, helburu sozialak bigarren maila batean utziz eta hori Ekonomia Solidarioarekin ez da gertatzen, beraientzat lehia batean ibiltzea onuragarria eta etikoa ez delako.

Landa azterketa egiterako orduan ere argi gelditu da Solidario hitzak esaldia guztiz aldatzen duela. Guztiz ezberdina den merkatu batera edo ekonomia batera eramaten gaituela eta esan beharra dago guztiz ados gaudela solidario hitzarekin. Aztertzea tokatu zaiguna eta gero, errealitatean ondo ikusten da horren diferentzia eta benetan uste dugu, solidario hitzak bakarrik esanahia guztiz aldatzen duela.

## 7.2. Etorkizunera begira.

Amaitzen joateko, ekonomia sozial eta solidarioari begira, azken urteotan aurrera pausu bat egin dela deritzogu. Izan ere, jendea kontzientziatuago, laguntzeko gogo gehiagorekin eta informazio gehiagorekin dago. Nahiz eta horrela izan, badaude beldurrez dauden elkarte batzuk eta ohikoa da, azken aldian politikan jasaten ari den aldaketekin. Errealitatean ikusi den bezala administrazioaren laguntza behar dutenek beldurra edukitzea normala da, ezin dutelako epe luzerako ikuspegia hain argi eduki, askotan aldaketak egoten direlako. Horregatik, ESS-aren epe luzerako ikuspegia edukitzea elkarte batzuentzat ez da erraza izango.

Lan honekin hasi aurretik ez genuen espero hainbesteko lana edukiko zuenik ekonomia mota honek. Egia da, arestian esan bezala, azken urteotan aurrera pausu handiak eman direla, baina oraindik ere lan handia dago egiteko. Mundua hobetzeko, esparru guztietan, lanari dagokionez, emakumeon eta gizonezkoen berdintzari, ingurumenari, laguntza komunitarioari eta beste hainbat gauzari dagokionez, horrelako pertsonak izugarritzko lana egiten dute, eta ez beraien onerako bakarrik, guztion onerako. Horrela ESS-aren garapena bermatzen laguntzen dute, etorkizunean honen garapen handiago bat edukitzeko.

Horregatik aurreikusten dute beraien elkarteetako etorkizuna ona izatea. Ikuspegi hori daukate gizartearen ikuspuntua aldatzen doalako, batez ere Euskal Herrian, beti izan direlako pentsaera zabaleko pertsonak. Baina baita Estatu mailan ere, geroz eta jende gehiagok bultzatzen ditu horrelako ekintzak eta laguntzeko prest daude. Garrantzitsua da horrela izatea, Ekonomia solidarioaren biziraupena luzatzeko eta horrela bertan dauden pertsonon lana errazteko. Hurrengo urtetarako ibilbidea positibo bezala ebaluatzen dute, hobetzen joango delakoan, baina lanean jarraitu behar da, ahal den guztietan informazioa emanez eta jendea honek duen garrantziaz kontzientziatzen.

Teorian esaten den bezala garrantzitsua da geografikoki non gauden jakitea baina ez da zertan muga bezala hartu behar. Era batera edo bestera jokaten da, legediaren eta politikaren arabera. Zaila da ekonomia solidarioan ibiltzea diru laguntzarik gabe baina, denon artean lortzen bada Ekonomia Solidarioari behar den indarra ematea, hori lortzea badago, horregatik diote etorkizunera begira jende gehiago kontzientziatu behar dela.



## BIBLIOGRAFIA

Askunze, C. (2015.eko Abuztuak 31). Economía solidaria.

<https://www.economiasolidaria.org/mesa-finanzas-eticas/noticias/entrevista-carlos-askunze-de-reas-helbidetik-eskuratua>

Askunze, C. (2016.eko Apirilak 8). ¿Qué es Economía Solidaria? (T. Murciana,

Elkarrizketatzailea)

Barea, J., & Monzón, J. (1995). *La economía social desde una perspectiva española*. Ekonomiaz

Nº33. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=274359> helbidetik eskuratua

BOE. (2011.eko Apirilak 30). *Boletín Oficial del Estado*. Ley 5/2011, de 29 de marzo, de

Economía Social: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-5708> helbidetik eskuratua

Chaves Ávila, R., & Monzón Campos, J. (2018). *La economía social ante los paradigmas*

*económicos emergentes: innovación social, economía colaborativa, economía circular, responsabilidad social empresarial, economía del bien común, empresa social y economía solidaria*. CIRIEC- España. revista de economía pública, social y cooperativa.

Coraggio, J. L. (2009.eko Urtarrilak). *Coraggio Economía*. Los caminos de la economía social y

solidaria: [https://www.coraggioeconomia.org/jlc\\_publicaciones\\_ep.htm](https://www.coraggioeconomia.org/jlc_publicaciones_ep.htm) helbidetik eskuratua

Coraggio, J. L. (2011). *Economía social y solidaria. El trabajo antes que el capital*.

Coraggio, J. L. (2013.eko Azaroak). *Las tres corrientes de pensamiento y acción dentro del*

*campo de la economía social y solidaria*. Brasil: Revista Brasileira.

<http://rbeur.anpur.org.br/rbeur/article/view/4731/4585> helbidetik eskuratua

Crespo Arnold, B., & Sabín Galán, F. (2014). *Los mercados sociales. La economía solidaria en*

*acción transformadora*.

Draperi, J. (2013). *Économie sociale, économie solidaire, entrepreneuriat social. Des projets politiques et économiques différents*. Paris: Editions Larcier.

Económico, G. d. (2017). *Plan integral de la Economía social en Navarra*.

EcosFron. (2015.eko Irailak 30). *Youtube*. <https://www.youtube.com/watch?v=ko7Qujp4DHE>  
helbidetik eskuratua

Ecuador, A. N. (2008). *Constitución de la República en Ecuador*.

Etxezarreta, E., & Lasa, E. (2019). *El concepto de economía social: Proceso de consolidación y retos de futuro*. GEIZKI.

Galán, S. (2018.eko Azaroak 05). *Economipedia*. Economía social- Definición:

<https://economipedia.com/definiciones/economia-social.html> helbidetik eskuratua

Gema Celorio, & López de Munain, A. (2007). *Academia*.

[https://www.academia.edu/26127500/Diccionario\\_de\\_educaci%C3%B3n\\_para\\_el\\_desarrollo](https://www.academia.edu/26127500/Diccionario_de_educaci%C3%B3n_para_el_desarrollo) helbidetik eskuratua

Gobernantza publiko eta Autogobernu, s. (2019.eko Urriaren 8an begiratu). *Euskadi.eus*.

<https://www.euskadi.eus/faqs/zer-da-elkarte-bat/web01-a2aderre/eu/> helbidetik eskuratua

Guridi Aldanondo, L., Perez de Mendiguren, J. C., Iametti Señorino, A., Deux Marzi, M. V.,

Vázquez, G., & Uribe, A. (2011). *Experiencias de Economía Social y*

*Solidaria:compartiendo estrategias y aprendizajes*. Bilbo: Ekonomi Solidariaren

Paperak.

Isandoval, M. (2013.eko Urtarrilak 18). *Blogspot*. La Economía Solidaria:

<http://martaisandoval.blogspot.com/2013/01/una-breve-resena-historica.html>

helbidetik eskuratua

Jimenez, J. (2015). *Socioeco*. [http://www.socioeco.org/bdf\\_organisme-457\\_es.html](http://www.socioeco.org/bdf_organisme-457_es.html) helbidetik

eskuratua

- Laville, J. L. (2010). *The Solidarity Economy: An International Movement. Open edition Journals*, 3-5.
- Laville, J., & Garcia, J. (2009). *Crisis capitalista y economía solidaria*. Barcelona: Icaria Editorial.
- Martin, D. (2018.eko Irailak 28). Más de cuatro millones de personas viven en exclusión social severa, un 40% más que al inicio de la crisis. *El mundo*.
- Martin, E. N. (2018.eko Apirilak 2). *Economía Solidaria*.  
<https://www.economiasolidaria.org/biblioteca/la-economia-social-y-solidaria-una-economia-para-las-personas-helbidetik-eskuratua>
- Monzon, J., & Chaves, R. (2012). *La Economía Social en la Unión Europea, Comité Economico y Social Europeo, Bruselas*.
- Navarra, R. d.-R. (2018ko Abendua). *Estado de la Economía Solidaria en Navarra*.
- Novillo, E. (2018.eko Apirilak 2). *Economiasolidaria.org*.  
<https://www.economiasolidaria.org/biblioteca/la-economia-social-y-solidaria-una-economia-para-las-personas-helbidetik-eskuratua>
- Pèrez de Mendiguren, J., & Enekoitz Etxezarreta. (2014.eko Uztailak 29). *EHU-UPV*.  
<http://www.ehu.es/ojs/index.php/Gezki/article/viewFile/14336/12682> helbidetik eskuratua
- REAS, E. (2011). *REAS EUSKADI*. Economía solidarioaren gutuneko 6 oinarriak:  
[https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/2011%20EKONOMIA\\_SOLIDARIOAREN\\_GUTUNA\\_REAS.pdf](https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/2011%20EKONOMIA_SOLIDARIOAREN_GUTUNA_REAS.pdf) helbidetik eskuratua
- REAS, N. (2018). *El estado de la Economía Solidaria en Navarra*. Pamplona.
- Rusiñol, P. (2017.eko Urtarrilak 24). Economía solidaria: un plan de negocio para cambiar el mundo. *El diario*.
- SCIC, L. (2001.eko Uztailak 17). *Les SCIC*. Soiété coopérative d'intérêt collectif: <http://www.les-scic.coop/sites/fr/les-scic/les-scic/qu-est-ce-qu-une-scic.html> helbidetik eskuratua

Significados.com. (2018.eko Urtarrilak 19). *Neoliberalismo*.

<https://www.significados.com/neoliberalismo/> helbidetik eskuratua

Sistiague, M., & ELBko kideak. (2019.eko 09k 27an begiratuta). *Euskonews*.

<http://www.euskonews.eus/0492zkb/ebooks49204eu.html> helbidetik eskuratua

Velez de Mendizabal, J. (2019.eko 09k 27an begiratuta). *EuskoNews*.

[http://www.euskonews.eus/0664zkb/elkar\\_eu.html](http://www.euskonews.eus/0664zkb/elkar_eu.html) helbidetik eskuratua



## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

<b>2.2.1.</b>	<b>Grafikoa 1:Ekonomia solidarioaren printzipioak</b> .....	18
<b>4.1.1.</b>	<b>Grafikoa 2: Ekonomia solidarioaren aldeko ardatzak</b> .....	35

## TAULEN AURKIBIDEA

<b>2.2.2.</b>	<b>Taula 1: Ekoizpenaren, banaketaren eta kontsumoaren printzipioak</b> .....	21
<b>4.1.1.</b>	<b>Taula 2: Reas Euskadi eta Reas Nafarroa</b> .....	34
<b>4.2.1.</b>	<b>Taula 3: REAS Nafarroako elkarteak</b> .....	36

## IRUDIEN AURKIBIDEA

<b>4.1.1.</b>	<b>Irudia 1: Euskal Autonomia Erkidegoa</b> .....	33
<b>4.2.1.</b>	<b>Irudia 2: Nafarroako Foru Komunitatea</b> .....	36
<b>4.3.1.</b>	<b>Irudia 3: Ipar Euskal Herria</b> .....	38



## ERANSKINAK

### EMAÚS GIZARTE FUNDAZIOA

DATA: 2019/07/24

Elkarrizketatuaren izen-abizenak: Alberto Gaston

Erakundearen izena: Emaus

Erakundearen barruan duen ardura: Etikeko arduraduna (Educacion ijtransformadora de incidencia y comunicacion)

Elkarrizketa egin den tokia: Mundaitz Kalea, 6, 20012 Donostia, Gipuzkoa

Ordua: 10:00 tan

Iraupena: 30 minutu gutxi gora behera

#### GALDERAK:

##### **1) Noiz eta nola sortu zen zuen erakundea?**

